



JARRI BIDEAN!

Elizbarrutiko Pastoral Plana
2026-2029

Iruña eta Tuterako Artzapezpikutza
Arzobispado de Pamplona y Tudela



JARRI BIDEAN!

Elizbarrutiko Pastoral Plana
2026-2029

Iruña eta Tuterako Artzapezpikutza
Arzobispado de Pamplona y Tudela



Aurkibidea

Argitaratzailea

Iruña eta Tuterako Artzapezpikutza

Koordinazioa eta idazketa

Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluaren

Batzorde Iraunkorra

Diseinua

Errea

Argazkiak

Iruña eta Tuterako Artzapezpikutza Artxiboa,

pexels.com, unsplash.com

Inprimatzea

Imagraf

LG NA 171-2026

Jarri bidean!	6
Sarrerako gaiak	9
Nola egin dugun lan	10
Pastoral Planaren sarrera	14
Pastoral Planaren ikonografia	20
Gai-multzoak eta loturak	21
2026-2029ko Pastoral Plana	23
Ametsa	25
Gai-multzoak	29
Berri Onaren iragarpena	30
Pastoral Arreta Unitateak (PAU)	34
Formazioa	37
Komunikazioa	41
Laikoak	44
Behartsuak	48
Familiak	51
Gazteak	54
Apaizak	57
Bizitza sagaratua	61
Landa-ingurunea	64
Babesa eta ingurune seguruak	68
Otoitza	72

Jarri bidean!

Iruña eta Tuterako Elizbarrutiko Pastoral Planaren aurkezpena

Jarri bidean!» Jainkoaren dei zuzen eta itxaropentsua da Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiarentzat. Ibilbide hau 2024ko ekainean hasi zen, Elizbarrutiko Pastoral Plana garatzeko aginduarekin. Dei hori altxatzera, gure erosotasun-eremuetatik ateratzera eta Jaunaren presentzia leialean konfiantza izatera gonbidatzen gaituen ahotsa da. Abrahamekin egin bezala, Jaunak esaten digu: *“Utzi zure herria... eta zoaz nik erakutsiko dizudan lurraldera”* (Has 12,1). Horrela sortu da Elizbarrutiko Pastoral Plana: elkarrekin bidea egiteko gonbidapen gisa, Espiritu Santuak gidatuta, Nafarroako Elizan gure kristau-bizitza eta gure ebanjelizazio-misioa berritu ditzagun.

Egitasmo hau ez da antolakuntza-agiri soil bat, ezta ekintza-sorta huts bat ere; proposamen espiritual, gizatiar eta pastoral gisa pentsa-

tuta dago, gure Eliza osoari haren nortasun sakonena berraurkitzen laguntzeko helburuarekin. Aldaketa-garaian bizi gara; sekularizazioak, harremanen haustea eta zentzuaren bilaketak biziki markatutako garaian, hain zuzen. Errealitate horri Elizarekiko urruntzea, apaizen eskasia eta erlijio-bizitzarekiko utzikeria gehitu behar zaizkio. Testuinguru honetan, Nafarroako Eliza itxaropenaren eta batasunaren seinale izatera deitua dago. Vatikanoko II. Kontzilioak gogorarazten digun bezala, *“Oraingo gizon-emakumeen poz eta itxaropenak, tristura eta larritasunak, [...] Kristoren ikasleen poz eta itxaropen, tristura eta larritasun ere badira”* (Gaudium et Spes, 1).

Jarri bidean! ekimenak Elizako kide izatearen kontzientzia piztu nahi du bataiatu guztiongan: gizon-emakume laiko, apaiz, diakono

nahiz bizitza sagaratuko kideengan; eta baita haur, gazte, adineko, familia, parrokia, mugimendu zein elkartean ere. Frantzisko Aita Santuak 2023ko Lisboako Gazteen Mundu Jardunaldian esan zuen bezala, *“Elizan inor ez dago soberan, guzti-guztiak gara beharrezkoak; denentzat, denentzat, denentzat dago lekua”* (Lisboa, 2023ko abuztuaren 3a). Plan hau ez dugu aktiboki parte hartzen dutenentzat bakarrik pentsatu, baita urrun, nekatuta edo noraezean sentitzen direnentzat ere. Jaunaren hitzak guztioi zuzenduak baitira: *“Zatoz, jarraitu niri”* (Mk 1,17). Elizbarrutiko Pastoral Plana pertsona, familia eta komunitate guztiak Elizaren bizitzan parte hartzera gonbidatzeko gogotik jaio da, erantzukizun partekatuan eta elkarren arteko konfiantzan oinarrituta.

Gure Elizbarrutiaren Pastoral Planak sinodaltasunaren begiradan du oinarri, Elizan elkarrekin ibiltzera deituta gaudela sinetsita. Sinodaltasuna ez da moda iragankor bat, nahiz eta oraindik sinodo-prozesuan eta egokitzen fasean murgilduta egon. Eliza izateko modu bat da, Ebanjelioan eta kristau-tradizioan sakonki errotua. Elkarrekin ibiltzeak zera dakar: elkarri entzutea, elkarrekin hausnartzea eta denona

den misioa gure egitea. Aldi berean, iritzi desberdinak onartzea, elkarrekin aurrera egitea inor atzean utzi gabe eta Espiritu Santuak inspiratzen dituen karismen nahiz ministerioen aniztasuna baloratzea.

Haren ikuspegi sinodalararekin batera, Elizbarrutiko Pastoral Planak Elizaren misio-sena jartzen du erdigunean. *“Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle”* (Mt 28,19): hauxe dugu Kristoren oinarritzko agindua gaur egun. Izan ere, misioa ez da betebeharrak gehigarri bat, fede bizi baten berezko adierazpena baizik. Gure gizartean nagusitu diren fenomenoek aurrean -jendea Elizatik aldentzea, sekularizazioa eta familia anitzetan kristau-erreferentzien falta-, beharrezkoa dugu berriro hastera, hasierako iragarpena itzultzea, herriko plaketara zein bidegurutzetara ateratzea, jende guztia Jaunaren otorduan parte hartzera gonbidatzeko (ik. Mt 22,9).

Frantzisko Aita Santuak gogorarazten digun bezala, *“aurrera doan Eliza ekimena hartzen duen, inplikatzeko den, laguntzen duen, fruituak ematen dituen eta ospatzen duen ikasle misiolarien komunitatea da”* (Evangelii Gaudium, 24). *“Jarri bidean!”*, beraz, dei bat da: kontserbazio eta mantentze hutsean oinarritutako pastoralak gainditzeko eta Ebanjelioa hitzez eta

ekintzez aldarrikatzeko gai den pastoraliza misiolari baterantz aurrera egiteko deia, alegia. Ildo honetatik, Elizbarrutiko Pastoral Planak Eliza gisa hainbat galdera egitera gonbidatzen gaitu: norengana iristen garen eta norengana ez, zein hizkuntza erabiltzen dugun, zer jarrera erakusten dugun eta nola aldarrikatzen dugun Jesukristo gaur gure artean.

J*arri bidean!* gure elizbarrutiko bizitzan parte hartzeko gonbidapena da. Guztiok dugu zerbait, edo asko, emateko. San Paulok gogorazten digun bezala, *“dohain mota desberdinak daude, baina Espiritu berak banatzen ditu”* (1 Ko 12,4). Pertsona bakoitzak badu zerbait eskaintzeko, eta inor ez da bazterrean uzteko modukoa. Parte-hartzearen aniztasun horrek Elizaren mezua aberasten du. Izan ere, parte-hartzeak komunitatearen kide bizi sentitzea dakar, misioa norberarena bezala hartzea eta bakoitzaren gaitasunen arabera lankidetzan aritzea. Plan honek parrokiak biziberritzera animatu nahi du, apaizak zaintzera, kontseilu pastoralak indartzera, erabaki-organoetan laikoen parte-hartzea bultzatzera, formazioari tartea egitera eta bataiatu guztien inplikazioa sustatzera, pastoral eta gizarte-bizitzako hainbat arlotan.

“Jarri bidean!” Elizbarrutiko Pastoral Plan hau Itxaropenaren Jubileuaren amaieran aurkezten dugu, 2025eko abenduaren 28an. Itxaropenerako gonbidapen gisa pentsatua dago, gure fedea berritzen, batasuna sendotzen eta Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutian misio-lana berpizten laguntzeko, elkarrekin bidea eginez, Jainkoaren maitasunaren lekuko sinesgarri eta alai izan gaitezen gure garaian. ●



**+ FLORENCIO ROSELLÓ
AVELLANAS O. DE M.**

Iruñeko artzapezpikua
eta Tuterako apezpikua

SARRERAKO GAIAK

Nola egin dugun lan

2024 ko ekainean, don Florentzio gure gotzainak Pastoral Kontseilua sortu zuen, Iruñeko eta Tuterako gure Elizarentzat, pastoral-plana garatzeko asmoarekin.

Zeregin hori burutzeko, 2024ko iralean **AMIA analisia** (gaztelan **DAFO**) egin genuen. Diagnostiko tresna honek erakunde, talde edo proiektu baten egungo egoera ulertzen laguntzen digu, erabaki estrategikoak hartu aurretik.

Analisi honen helburua lau dimentsio hauetan modu egituratuan hausnartzea da:

- **A (Ahultasunak):** Ekintza pastoral edo helburuak betetzea mugatzen edo eragozten duten barne alderdiak.
- **M (Mehatxuak):** Lanaren garapena arriskuan jar dezaketen edo misioan eragin negatiboa izan dezaketen kanpoko faktoreak.

- **I (Indarguneak):** Pastoral-ekintza bultzatzen duten barne-gaitasunak, baliabideak edo balioak.

- **A (Aukerak):** Kanpoko edo testuinguruko faktoreak, ebanjelizazioarako bide berriak hobetu edo ireki ditzaketenak.

Lan honi esker Iruñeko eta Tuterako gure Elizbarrutiaren errealitateari buruzko ikuspegi zabal eta parte-hartzailea bildu ahal izan genuen. Gainera, oinarri gisa, **erronka pastoral nagusiak zeintzuk diren ikusteko balio izan zuen**, bai eta pastoral planaren bidean hurrengo urratsak gidatzeko ere.

Ikuspegi partekatu horretatik abiatuta, gure elizbarrutiaren irudi errealista osatzen hasi ginen; izan ere, Elizak Nafarroan kontrastegaraia bizi du.

Gure **ahultasunen** artean honako hauek aipatu ditzakegu: apaizen zahartzea eta haien gehiegizko zama, parroikia askotan komunitate-bizitza

falta, bataiatutako helduen hutsunea, gazteen parte-hartze eskasa eta apaizarekiko gehiegizko menpekotasuna. Horri gehitzen zaizkio fededun gutxiko parroikia asko mantentzearen erronkak, komunitateen arteko koordinazio-zailtasunak eta, misioak eskatzen dituen aldaketen aurrean sortzen den erresistentzia.

Mehatxuak ere agerian daude: sekularizazio gero eta sendoagoa, erlijioarekiko axolagabekeria eta baita etsaitasuna ere dakarrena; familiari eta bizitzari eragiten dioten gizarte eta lege-erronkak; jende askori eragiten dion krisi ekonomikoa; landa-eremuen hustutzea eta mundu aldakor zein ziurgabe honen ahuldadea. Hauek guztiek ere badute eragin zuzena gure Elizaren bizitzan.

Hala ere, **indargune** baliotsuak ere baditugu: Espiritu Santuaren dohainarekiko otzantasun nabarmena, laiko askoren konpromiso gero eta handiagoa eta apaiz prestatu eta emanak. Nafarroako bizitzan eta kulturen sustrai sakonak dituen Eliza gara; erlijiotasun herrikoi bizia dugu (erromesaldiak, Donejakue Bidea, prozesioak, kofradiak...) eta pastoral zein gizarte-egitura oso eraginkorra –Caritas, kristau mugimenduak, ikastetxeak, komunitateak–, espiritua berritzeko esperientzien bidez indartzen dena.

Gainera, galdu ezin ditugun **aukerak** irekitzen ari zaizkigu: Frantzisko Aita Santuaren sinodaltasunerako eta “kanpora ateratzen den Eliza” izateko utzi zigun gonbidapena, espiritualtasunarekiko eta gizarte-konpromisoarekiko interes berritua, pastoral-unitateen balioa lankidetzarako gune gisa, teknologia berrien erabilera eta gure fedea biziberritu dezaketen mugimendu eta komunitateen indarra. Horrek guztiak, Espirituaren gidaritzapean, garai hau itxaropenez bizitzera, bai eta misio-lana konfiantzaz berritzera bultzatzen gaitu. ●

LABURBILDUZ

● Ikerketa honek gure Elizaren argi-itzalak ezagutzeko aukera eman digu. Astintzen gaituzten ahuleziak identifikatu ditugu, baina baita eusten gaituzten indarguneak eta bide berriak zabaltzen dizkiguten aukerak ere. Horrek guztiak gogorarazten digu ez gaudela bakarrik: Espirituak gure misioa hauspotzen jarraitzen du eta bizitza eta itxaropena pizten ditu gure artean.

● Diagnostiko ezkorra izatetik urrun, AMIA analisi honek bihozberritzera eta konpromisora dei egiten digu. Jaunak gure dohainak sormenez eta konfiantzaz erabiltzera deitzen gaitu, gure eliz-elkarteen arteko batasuna sendotzera eta fedea pozik bizitzera. Elizaren etorkizuna ez dago estrategien edo egituren menpe soilik, Ebanjelioarekiko leialtasunaren menpe baizik eta, azken finean, ziurtasun honen menpe: Jainkoak gaur egun ere bere herriaren erdian eta bere herriaren bidez jokatzeko jarraitzen duela.



Pastoral Planaren sarrera

Eliza unibertsala elizbarruti bakoitzean gauzatzen da eta Eukaristian du oinarri (ikus Lk 22,7-38); gaur, beti bezala, bere nortasun sakonena definitzen duen altxor baten eta misio baten zaindari sentitzen da. Bere altxorra Kristo bera da, herrien argia. Baina, argi horrek pertsona guztiak ukitu eta argitu ditzan, ikasleen komunitatea Ebanjelioa izaki guztiei hots egiteko misiora deitua sentitzen da. Hori guztia ez da Kristoren aginduari erantzutea besterik (Mt 28,19-20a: *“Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitarene eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz, eta nik agindu dizuedan guztia irakatsiz”*) bai eta Jaunaren nahiari jarraitzea ere (1Tm 2,4: *Jainkoak “gizaki guztiak salbatu eta egia ezagutzera hel daitezen nahi du”*)¹.

Azken berrogeita hamar urteotan Aita Santuen irakaspenak bereziki azpimarratu ditu Elizak betidanik izan dituen ziurtasun hauek. Azpimarratze hori San Paulo VI.ak gogo-

rarazi zuenarekin hasi zen: ebanjelizatzea Elizaren funtsezko misioa dela baieztatu zuenean, alegia². Ondoren, San Joan Paulo II.ak ohartarazi zigun gaurko munduan zeregin horrek ez dakarrela “berrebanjelizatze konpromisoa”, baizik eta “ebanjelizazio berri bat” abiatzea: berria bere suan, metodoetan eta adierazpideetan³. Benedikto XVI.ak, berriz, bizitzari norabide berri eta erabakigarria ematen dion pertsonarekin, Kristorekin, topo egiteari eman zion lehentasuna⁴. Azkenik, Frantzisko Aita Santuak sinestun guztiak animatu zituen Jainkoaren maitasuna —gure bihotzak poztasunez betetzen dituen— senideekin partekatze-
ra⁵. Leon XIV.a Aita Santuak bide horretan sakontzera gonbidatzen jarraitzen du.

Gure Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiak, Eliza unibertsala ikusgai eta zehatz egiten den tokiko Eliza gisa, altxor eta misio hau partekatzen ditu; beraz, XXI. mende honetan deitua sentitzen da “modu xume eta zuze-

nean, Jesukristok Espiritu Santuaren bidez ezagutarazitako Jainkoaren lekukotza ematera. Mundua maite izan duela haragi egin den bere Hitzan, gauza guztiei izatea eman diela eta gizateria betiko bizitzara deitu duela aitortzera, alegia”⁶. Frantzisko Aita Santuak gogorarazi zigun bezala, gure elizbarrutiko komunitateak lekuko bizia izan nahi du, Jesusekin izandako elkartze hau poz-iturri dela eta, berez, zabaltzeko joera duela erakusteko⁷.

Bada, Paulo VI.ak “premiazko” hiru galdera egin zizkion bere buruari ebanjelizatze zeregin honen garapenari dagokionez (zerbitzatzen dugun eta oso-osorik eta bizirik transmititu behar dugun mezuari leial izatearren). Galdera horiek argia egin diezagukete elizbarrutiko pastoral proiektua abiarazteko puntuan gaudenean:

“— Gizakiaren kontzientzia sakonki astintzeko gai izan behar lukeen Berri Onaren ezkutuko indarrak zer eraginkortasun du gaur egun? — Noraino eta nola alda dezake benetan gaur egungo gizakia ebanjelio indar honek? — Zein bide hartu behar dugu Ebanjelioa hots egiteko, haren indarra eraginkorra izan dadin?”⁸.

Izan ere, asmo onak ez dira aski Jaunak eman digun zeregin hau burutzeko. Ezinbestekoa dugu gure lan pastoral modu errealista eta lasaian ebaluatzea, gaur egungo testuinguruan eraginkorra eta esanguratsua gerta dadin. Hori da, hain zuzen, Elizbarrutiko Pastoral Plan honen helburua. Bizitzen ari garen une hau, “kanpora ateratzen den Eliza”⁹ eta misiolaria eta sindala den Eliza izateko gonbidapenak markatzen du. Honek bultzada gisa balio du gure tokiko Elizaren pastoral berritze honetarako, hain zuzen ere, “Elizaren bizitza eta misioa erakusten duen estilo berezia islatzeko, hau da, Jainkoaren Herri gisa elkarrekin ibiltzea eta batzarrean biltzea, Jesus Jaunak, Espiritu Santuaren indarrez, Ebanjelioa aldarrikatze deituak garenez gero”¹⁰.

Horregatik, gure Elizbarrutiko Pastoral Plan honek, Kristoren Ebanjelioari eta jaso duen fede ondareari zintzo eutsirik¹¹, gure Elizari lagundu nahi dio senideen bila ateratzen, Jaunaren agindu eta nahi unibertsalari erantzunez, sarrera honen hasieran azaldu bezala. Zehazki, honek hiru elementu bereganatzea dakar, gure ikuspegia eta begirada zabaldu daitezzen.

Lehenik eta behin, gogoratu behar dugu “fededun guztiak, beren bataioagatik, Jainkoaren profeta-, apaiz- eta errege-herri diren heinean, egiaren eta biziaren Hitzaren lekuko izatera eta Hura ezagutaraztera deituak daudela”¹². Horrela, Pastoral Plan hau elizbarrutiko kontsulta eta parte hartze zabalaren fruitua da, benetako espiritu sinodal baten barruan. **Gure komunitate osoaren pastoral ekintza gidatzea du helburu, non denok garen “bidelagunak**, Kristoren apaizgo bakarrean parte-hartzaile aktibo izatera deituak eta Espiritu Santuak guztien onerako emandako karisma desberdinen hartzaileak”¹³. Beraz, inork ez luke bere burua baztertua ikusi behar hemen aurkeztu diren proposamen eta tresnetatik, betiere, gure artzapezpikuaren gidaritzapean eta norabidean¹⁴.

Bigarrenik, Pastoral Plangintza honek, **ebanjelizatze-espíritu horretan, elizbarrutiko bizitza osoa piztu nahi du**. Izan ere, ebanjelizazioa ez da gure pastoral-lanaren atal soil bat, alderdi batzuei bakarrik lotua; alderantziz, gure elizbarrutiak egiten dituen ekintza guztien arima izan behar du, bere baitan hartuz katekesi, antolakuntza, karitate, formazio eta bizitza espiritualaren osagaiak¹⁵.

Hirugarrenik, Pastoral Plangintza honen hartzaile-eremuak ere izaera ia unibertsal eta integral bera du. Izan ere, Aita Santuaren irakaspenak ongi azpimarratu duen bezala, ebanjelizatze-ekintza “ohiko eliztarrengandik Kristo ezagutzen ez duten edo betidanik ukatu dutenengana” zuzendu behar da, “bataioaren eskakizunak bizi ez dituzten bataiatuak” ere barnean hartuta¹⁶.

Nafarroako gure Elizak misio-lan hau egin nahi du, beste era batera ezin denez, **bizitzan eta ekintzan bat eginda**. Vatikanoko II. Kontzilioaren eliz-espíritu biziberritu behar dugu. Era berean, elkarrekin sentitu behar dugu elizbarrutiko kide garelara; hau da, Nafarroan errones dabilen Eliza osoaren partaide, berak egiten baititu ikusgarri Elizaren izaera ebanjelizatzailea eta salbazioaren sakramentu unibertsala¹⁷. Pastoral-tza-ekintzaren subjektua elizbarruti-Eliza bera da, Espiritu Santuaren indarrez eta eraginez, beste edozein errealitate partikularren gainetik. Elizaren batasuna misiorako batasuna da; horregatik, elizbarrutiarekiko lotura da pastoral-ekintza guztien egiaren irizpidea¹⁸. Hau ez da koordinazio-ariketa hutsa; alderantziz, elizbarrutiarekiko lotura hori pastoral-ekintzaren identitatearen parte da. Hala dio aipatutako Vatika-

noko II. Kontzilioak, “kristau fededunek egin bezate beren apostolutza elkar harturik. Izan bitez apostolu bai beren familietako elkartetan, bai parrokia eta elizbarrutietan, hauek adierazten baitute apostolutzaren elkarteko izaera [...]”¹⁹.

Pastoral Plan honek tresna eraginkorra izan behar du, ebanjelizazio-lan honetan indarrez eta zehaztasunez aurrera egiteko. Zentzu honetan, gogora ekarri beharra dago pastoral-tza-lan guztia Jainkoaren ekintzaren misterioa dela, bere Elizaren ekimenen eta izatearen bidez gauzatua. Pastoral-tza-lanaren ulermen integral horretan sakondu dezakegu Elizaren bizitza osatzen duten lau oinarritzko ekintzak kontuan hartuta: Hitzaren hots egitea eta predikazioa (*martyria*), ospakizuna eta sakramentuak (*leiturgia*), karitatea eta zerbitzua (*diakonia*), eta, azkenik, Elizaren barruko komunitate-ekintza eta batasuna (*koinonía*). Lau ekintza horietako bakoitzak, askotan elkarrekin gurutzatuta, ondorengo ataletan aurkeztu diren *Amets*, *Konpromiso* eta *Bideen* oinarria osatzen du.

Pastoral Planaren ebaluazioak honako helburu hauek izan beharko lituzke: indartu beharreko puntuak eta zuzendu beharreko alderdiak

(baldin badira) zehaztea eta, agian, Nafarroako kristau-komunitatearen ebanjelizatze-sua biziberritzeko ekimen egokiak proposatzea.

Don Florentzio artzapezpikuak hasieratik Pastoral Plana **bideragarria, errealista eta neurgarria** izateko nahia adierazi zuen. Horretarako, Plana ezartzeko, garatzeko eta ezinbestekoa den amaierako ebaluazioa egiteko, baliabide egokiak behar dira. Baliabide horiek gure konpromisoak indartuko dituzte eta guztien nahia- ren fruitu diren bideei jarraitzeko aukera emango digute. Honako hauek dira:

- **Kudeaketa-tresna bateratuak:** Plangintza errealista eta itxaropentsua egiteko lan-orriak.
- **Arduradunak izendatzea:** Gure tokiko Elizaren errealitate guztietan bideak finkatu eta zabalduko dituzten pertsonak izendatzea.
- **Baliabideak zehaztea:** Arduradunek beharrezko baliabideak identifikatzea eta zehaztea.
- **Bideen garapena eta kronograma:** Arduradunek bide bakoitzaren garapen zehatza eta kronograma espezifikoak finkatzea.
- **Jarraipen eta ebaluazio adierazleak:** berrikuspen-epe zehatzak ezartzea.
- **Elkarritzaketa-guneak:** pastoral

-maila guztien arteko komuni-
kazioa erraztuko duten guneak
sortzea.

• **Aldizkako ebaluazioa eta azken ebaluazioa.**

Ezinbestekoa da izendatutako **arduradunek** beharrezko laguntza izatea, *Bideak* izenpean ezarritako ekimenak konpromisoaz eta ilusioz aurrera eramane ahal izateko. Beste mailetak arduradunen babesa eta laguntzaileak beharko dituzte etapa bakoitzean, sareak sustatuz; horrela, Pastoral Plan hau gure elizbarrutian errealitate bihurtu dadin eta talde-lanean, elkar-ulertzean eta, ondorioz, komunioan aurrerapausoak eman daitezke.

Planaren **ebaluazioa** eta jarraipena **aldian-aldian eta modu parte hartzailean** egin behar dira. Horretarako, urtero aztertuko da hartutako konpromisoak nola gauzatzen ari diren (ebaluazio horiek “*komunioa, misioarekiko atxikimendu pertsonala eta komunitarioa eta bakoitzak prozesu honetan hartzen duen erantzukizuna adierazten dute*”). Horrez gain, 2026–2029 hirurtekoaren amaieran, **azken ebaluazio** bat ere egingen da.

Pastoral Plana arretaz aztertu, ebaluatu eta berrikusten ez bada, funtsik eta jarraitutasunik gabeko ekimen isolatu bilakatzeko arriskua dago.

Dokumentu batean edo gehiagotan jasotako berrikuspen eta ebaluazio horiek arazoak bideratzen, egindako aurrerapenak ospatzen eta atzera-pausoak onartzen zein aitortzen lagunduko digute. Ebaluazioa ezinbestekoa da gure konpromisoei leial eutsi eta sortu diren -edo ondotik sor litezkeen- erronkei aurre egiteko. Hori guztia fedean hazteko giroan eta eliz konpromisoa sendotzeko asmoz egin behar da.

Hartzen dugun pastoral misio honen aurrean, “akatsa litzateke zeregin hau meritu pertsonal edo ekintza heroiko gisa ulertzea; izan ere, lana lehenik eta behin Berea da, gure adimenak iritsi eta uler dezakeenetik haratago. Jesus bera da ‘lehenengo ebanjelizatzaile eta handiena’. Ebanjelizazio-lan orotan, nagusitasuna Jainkoari dagokio beti; Berak deitu gaitu Berarekin lankidetzan aritzeko eta bere Espirituaren indarraz bul-tzatzen gaitu. Benetako berritasuna Jainkoak berak harrigarriro sortu nahi duena da, Berak eragiten duena, Berak pizten duena eta mila modutan Berak gidatzen eta laguntzen duena”²⁰. Zeregin honetan “gure konpromiso eskuzabala eskatzen” duen Jaunak lagun diezagula gure ahaleginetan eta bere argitasunera makurtzen irakats diezagula. ●

ITURRIAK

- ¹ Cf. *Lumen gentium* 1.
- ² Izan ere “Ebanjelioa zabaltzea da Elizaren poza eta berezko deia, horixe baitu bere nortasunik sakonena. Berri Ona iragartzeko bizi da Eliza: hitza irakasteko, graziaren bide izateko eta pekatariak Jaunarekin adiskidetzeko. Baita Kristoren sakrifizioa Meza santuan iraunarazteko ere, Beraren heriotza eta berpizkunde loriatsuaren oroigarri den horretan” (*Evangelii nuntiandi*, 14).
- ³ San Juan Pablo II, *Discurso a la asamblea del CELAM*, Port-au-Prince (Haiti), 1983ko martxoaren 9an.
- ⁴ “Guk sinetsi dugu Jainkoaren maitasunean: honela adieraz dezake kristauak bere bizitzan egin duen oinarritzko hautapena. Ez da kristau izaten hasten erabaki etiko batek edota ideia nagusi batek hartara eraginik, bizitzari aukera berria eta, beraz, behin betiko norabidea ematen dion gertakariarekin, Pertsonarekin aurkitzean baizik” (*Deus caritas est*, 1).
- ⁵ “Gure gizatasuna bete-betere iristen da geure mugak gainditzen ditugunean, Jainkoari gure egiazko izatera eramaten uzten diogunean, geure egiazkotasun sakonenera iristeko. Horixe da, hain zuzen, ebanjelio-lanaren iturburua. Izan ere, bizitzari zentzua itzuli dion maitasun hori bihotzez hartu duenak, nola gorde beretzat bakarrik besteekin partekatze-ko gogo hori?” (*Evangelii gaudium*, 8).
- ⁶ *Evangelii nuntiandi*, 26.
- ⁷ Cf. *Evangelii gaudium*, 1 eta 9.
- ⁸ *Evangelii nuntiandi*, 4.
- ⁹ Cf. *Evangelii gaudium*, 20 y ss.
- ¹⁰ Cf. CTI, *La sinodalidad en la vida y en la misión de la Iglesia*, 70.
- ¹¹ Fidelitasun hau ezinbestekoa dugu edozein eliza-prozesuan, eta zehazki prozesu sinodalean, ideologizatze tentazioa saihestearren (cf. CTI, *La sinodalidad en la vida y en la misión de la Iglesia*, 72).
- ¹² CTI, *La sinodalidad en la vida y en la misión de la Iglesia*, 56.

¹³ CTI, *La sinodalidad en la vida y en la misión de la Iglesia*, 55.

¹⁴ Cf. *Christus Dominus* 17 eta Frantzisko eta XVI. Apezpikuen Sinodoaren Ohiko Asanblada Orokorra, *Por una Iglesia sinodal: comunión, participación y misión; Documento final*, 33.

¹⁵ Cf. *Evangelii nuntiandi*, 29 eta hurr.; Frantzisko eta XVI. Apezpikuen Sinodoaren Ohiko Asanblada Orokorra, *Por una Iglesia sinodal: comunión, participación y misión; Documento final*, 28, 32, 57.

¹⁶ Cf. *Evangelii nuntiandi*, 49 eta hurr. edo Benedicto XVI, *Homilía durante la Santa Misa conclusiva de la XIII Asamblea General Ordinaria del Sínodo de los Obispos* (2012ko urriaren 28an).

¹⁷ Cf. *Gaudium et spes*, 45.

¹⁸ Cf. *Lumen gentium*, 13 eta 26.

¹⁹ Cf. *Apostolicam Actuositatem*, 18.

²⁰ *Evangelii gaudium*, 12.

Pastoral Planaren ikonografia

Pastoral Planak ez du bere edukia kontzeptu edo hitz teknikoen bidez soilik adierazi nahi; **hizkuntza sinbolikoari** ere bide eman nahi dio, horrek Nafarroan Eliza gisa bizitzen ari garen prozesua hobeki ulertzen laguntzen baitigu. Horregatik, dokumentu honetan jasotako amets, konpromiso eta bideen esanahia modu xume bezain sakonean gogorarazten duten irudiak aukeratu ditugu. Horrela, ikonografiak hizkuntza tekniko edo hotzetik urruntzen laguntzen digu, Elizaren bizitzari dagokion hizkuntza espiritual eta hurbilagoan murgiltzeko.



Bihotzak, hark adierazten duen Espiritu Santuarekin batera, **Ametsa** irudikatzen du. Gure barne-muinaz hitz egiten digu, Jainkoarekin dugun harreman intimoaz, oroimena gordezten den eta itxaropenaren bertutea loratzen den txokoaz. Itxaropenaren Jubileu Urtean azpimarratu genuen bezala, bihotzak gogorarazten digu dena Jainkoaren graziatik eta gure bidea gidatzen duen Espiritu Santuaren indarretik jaiotzen dela.



Bihotzaren gainean dagoen eskuak **Konpromisoa** adierazten du. Komunioaren, misioarekiko atxikimendu pertsonal zein komunitarioaren, eta prozesu honetan pertsona bakoitzak hartzen duen erantzukizunaren ikurra da.



Aurrerantz luzatutako eskua duen Jesusen gurutzeak **Bidea** adierazten du. Jesus dugu bidea, egia eta bizia, eta haren gurutzeak jarraitu beharreko norabidea erakusten digu. Bihotza eta erdiko gurutzea gure bizitzan eta gure historian bizirik dagoen Kristoren ikurra dira.



Zabaldutako eskuek **Ebaluazioa** irudikatzen dute. Egindako lanaren fruituak —lortutakoa zein oraindik egitekoa duguna— onartzeko jarrera apala erakusten digute.

Gai-multzoak eta loturak



PASTORAL PLANA 2026-2029

AMETSA

Ametsa

Jesukristo gure Jaunaren Jainkoak [...] argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera deitu zaituzten.

Ef 1, 17-18

Fede-begirada sakonaz jokatu behar dugu, Pastoral Plana ekintza-zerrenda huts batean gera ez dadin. Izan ere, gure Elizan Ebanjelioa bizi eta aldarrikatzeko benetako bide izan behar du. Horretarako, ezinbestekoa da elkarrekin lan egitea, pastoraltza-ekintza bakoitzak Kristorengana hurbiltzen gaituela eta haren Erreinura eramaten gaituela sinetsita. Espiritu Santuak inspiratu eta gida gaitzala zeregin honetan; itxaropenez beterik, eska dezagun gizakiaren ahalegin huts batean ez geratzeko.

Gure Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluaren iritzia jaso ondoren eta Apezpikuen Sinodoaren XVI. Ohiko Batzar Nagusiaren amaierako dokumentua oinarri hartuta (*Eliza sinodalen alde: komunioa, parte-hartzea eta misioa*), **amets** hau partekatu nahi dugu:



Komunioa: Otoitza, Espirituaren araberako bizitza eta behartsu zein sufritzen dutenen aldeko lehentasuna izan daitezela Pastoral Plan berri honen zutabeak; izan ere, norabide berean elkarrekin ibiltzeko asmo integratzaile eta sinodalen batekin jaioa da plana.

Parte-hartzea: Eliza parte-hartzaile, misiolaria eta guztiontzat hurbila izan gaitzen. Kristorengan sustraituta eta gure tradizioan oinarrituta, guztiok haren maitasunaren lekuko zintzo izan gaitzen.

Misioa: Gure elizbarrutia, barrura zein kanpora begira, ebanjelizazioaren zerbitzari izan dadila; “kanpora ateratzen den” eta “harrera egiten duen” Eliza, alegia.



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

28. [...] Sinodaltasuna, laburbilduz, berritze espiritualerako eta egitura-aldaketarako bidea dela esan dezakegu, Eliza parte-hartzaileago eta misiolariago bihurtzeko bidea. Horrela, Kristoren argia zabalduz, gizon eta emakume guztiekin batera ibiltzeko gai izanen gara.

43. [...] Espiritualtasun sinodala Espiritu Santuaren eraginetik sortzen da eta Jaunaren Hitza entzutea, kontenplazioa, isiltasuna eta bihozberritzea eskatzen ditu [...].

GAI-MULTZOAK

Berri Onaren iragarpena

Jesusek berriro esan zien:
«**Bakea zuei. Aitak ni bidali**
nauen bezala, nik zuek bidaltzen
zaituztet». Eta haien gainera
arnasa botaz, esan zien:
«**Hartzazue Espiritu Santua»**
Jn 20, 21-22

Ebanjelioko pasarte honek gogorazten digu ebanjelizazioa ez dela gizakiok asmatutako eginkizuna, Kristok berak ematen digun misioa baizik. Izan ere, bere misioaren lekuko egiten gaitu: «Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet». Gure elizbarrutiak bihotz-bihotzez bizi nahi du dei hori, jakinik ez gaudela bakarrik: Espiritu Santuak eusten digu, bere grazia eta bakea ematen dizkigu eta Ebanjelioa lau haizeetara zabaltzera bultzatzen gaitu. Horregatik, Pastoral Plana ez da komunikazio-estrategia soil bat, Jesusek egindako gonbidapenari emandako erantzun zintzoa baizik; Espirituaren indarrari esker argitara ateratzeko, fedearen poza elkarba-

natzeko eta munduaren zerbitzari izateko gonbidapena, hain zuzen ere.

Sarrera eta testuingurua

AMIA analisiak agerian uzten du denok dugun uste bera: Ebanjelioa aldarrikatzea dela gure elizbarrutiko Elizaren muina eta eginkizun nagusia. Guztiengana iristeko nahia da gure adostasun eta topagune nagusia: Kristorengandik urrundu direnekin edo Bera ezagutzen ez dutenekin topo egitea eta topaketa hori posible egiten duten bide berriak bilatzea. Aldi berean, aitortzen dugu egungo gizarte eta kulturen erlijioa ez dela jada bizitza publikoaren edo sozialaren ardatz nagusia. Baina aldaketa hau, oztopo izan beharrean, erronka eta aukera bihurtzen zaigu ebanjelizazio berri bati bide emateko; sormenez eta Ebanjelioarekiko leialtasunez, hizkuntza, erreferentzia-puntu eta fedea transmititzeko modu berriak aurkitzeko, alegia.

Kanpora ateratzen den Eliza bat dugu amets, Eliza misiolari eta hurbila, bai hirietan eta baita gure landa-ere-

muetak herrietan ere, komunitateetan itxaropena eta etorkizunerako ikuspegia pizten duena. Espirituaren bultzadak entzuten dakien Eliza eta, otoitzak eta komunitate-bizitzak lagunduta, gure herriarentzat Kristo berpiztuaren ezaugarri bizia izan den Eliza, hain zuzen ere. Beharrezkoa da indibidualismoa eta talde itxien tentazioa baztertzea, horrek antzua egiten baitu ebanjelizazioa. Beraz, kontua da elizbarrutiko Eliza lantzea: benetako “Jainkoaren Herriaren zati” (ChD 11) izanez; bertan bataio-komunioa batasunean eta aniztasunean biziko da. Horrela, kristau-bizitzarako, misiorako eta santutasunerako bokazio amankomuna errealitate bizia izan den gure eliz-esperientzia guztietan, apezpikuaren deia eta konunio-zerbitzua bere eginez.

Erronka nagusiak

Nafarroan goitik beherako eraldaketa sakon baten lekuko gara: tradizionalki kristauak eta ebanjelizatzaileak ziren eremuak gaur egun “**ebanjelizazio berri**” baten **premia duten esparru** bihurtzen ari dira. Errealitate honen aurrean, gure komunitateek benetako misiolari izateko deia dute.

Erronka honek premiazko hainbat eginkizun pastoral jartzen dizkigu mahai ganean: Berri Onaren lehen

iragarpena sustatzea, norbanakoei zein komunitateei gertutik laguntzea, prestakuntza integrala indartzea, bizitza espirituala suspertzea, eta Ebanjelioarekin bat datorren gizarte-konpromisoa eta Elizaren presentzia publiko berritua bultzatzea.

Gure erosotasun-eremuetatik ateratzea eta Eliza irekiagoa eta komunikatiboagoa eraikitzea da kontua, fedetik urrun daudenengana eta sin-esgabeengana iristeko. Horretarako, **ebanjelizatze modu berriak** urratu, finkatuta dauden praktikak biziberritu eta horietan sakondu beharko dugu.

Familien parte-hartze aktiboa ere funtsezkoa da: gurasoak seme-alaben katekesiaren erdigunean jartzea, gurasoentzako saioak antolatzea eta Bataioa edo Lehen Jaunartzea bezalako une nagusiak aprobetxatzea, laguntza egokiaren bidez fedearen haria berreskuratzea gonbidatzeko. Horrekin batera, laikoan **prestakuntza** biblikoa, liturgikoa eta doktrinala indartu behar dugu, erantzukizunak beren gain hartzeko gai izan daitezen eta gaur egungo munduaren erronkei aurre egiteko presta daitezen.

Muga batzuk ere antzeman ditugu: sakramentuetan gehiegi zentratzen den ebanjelizazioa —urrunen daudenengana iristen ez dena—, eta sakramentuak sakontasun espiritualik gabeko erritu sozial huts bihurtzeko arriskua.

Berri Onaren iragarpena



KONPROMISOA

“Kanpora ateratzen” ari den elizbarruti bat dugu amets, Berri Onaren lekuko diren komunitate bizek osatua eta gaur egungo erronketara egokitzen dena (ebanjelizazio berria).

Fede-esperientziaren benetako transmisioa amesten dugu. Eginkizun horren ardura kristau-komunitate osoarena da, Eliza Jainkoaren maitasunaren ispilu eta haren Erreinuko eragile nekaezina izan dadin.



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

117. [...] Parrokia-komunitatea. [...] Misioak eskatzen dituen bide berriei erantzuteko, parrokia ekintza pastoral berriak bereganatzera mugitu behar da, betiere pertsonen

joan-etorriak eta haien bizitzak garatzen diren “lurralde existentziala” kontuan hartuz. Fedean hasteko bideak sustatuz eta laguntza zein prestakuntza eskainiz, bizitzako etapa desberdinetan eta munduan duten misioan lagun diezaieke pertsonen. Horrela, argi geratuko da parrokia ez dagoela bere baitan itxia, misioari begira baizik, eta hainbeste lagunen konpromisoa babestu behar duela, beren lanbideetan nahiz zeregin sozial, kultural eta politikoetan fedearen lekuko diren horien, hain zuzen ere. [...]

145. Sinodaltasunetik bultzada berria jaso dezaketen formazio-praktiken artean, arreta berezia jarri behar zaio katekesiari, izan ere, fedean hasteko bide izateaz gain, gero eta gehiago “kanpora begirakoa” izan behar du, jendearengana zuzenduko dena.



BIDEAK

1. Irizpide pastoralak bateratzea, zabaltzea eta praktikan jartzea, parrokien artean alde nabarmenik egon ez dadin eta batasuna sustatu dadin, baina beharrezko malgutasunarekin. Zehazki, gure elizbarrutiari egokitutako **kristau-has-tapenerako eta katekesirako Gida edo Direktorio** berri bat garatu behar da. Horrez gain, **Eukaristia-ren zentraltasuna** berri behar dugu gure komunitateen bizitzan, ospakizunen ordutegiak eta lekuak behar bezala adostuz.
2. **Familiei laguntzeko eta prestatzeko plan bat garatzea** eta parroketan martxan jartzea, fedean hasteko prozesuetan familia osoak parte har dezan.
3. **Lehen iragarpenaren estrategiak eta metodoak sustatzea** eta horiei jarraipena zein laguntza emateko elizbarrutiko bideak ezarriko dituen talde bat eratzea, komunitate osoaren parte-hartzea bultzatuz.

4. **Diakonotza iraunkorra** ezagutaraztea eta sustatzea, Elizaren ebangelizatze-misioan parte hartzeko bokazio gisa.



Pastoral Arreta Unitateak (PAU)

Agindu berri bat ematen dizuete: elkar maita dezazuela. Nik maite izan zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar. Horrela ezagutuko dute guztiek zuek nire ikasle zaretela: zuek elkar maite izatean.

Jn 13, 34-35

Jesusen agindu berriak —“maita ezazue elkar, nik maite izan zaituztedan bezala”— Pastoral Arreta Unitateen zentzu sakona erakusten du. Kontua ez baita soilik egiturak berritzea, elkarrekin ibiltzen ikastea baizik, bizitza, fedea eta misioa partekatuz. Komunitateek anaitasunean eta lankidetzan bat egiten dutenean, Kristoren maitasunaren lekukotasun bizia sortzen da eta Ebanjelioa sinesgarri bihurtzen da. PAUen benetako indarra ez dago bilduko dituzten baliabideetan, kideek elkar anai-arreba eta ikasle gisa aitortzeko izanen duten gaitasunean baizik, Elizari berezko

nortasuna ematen dion maitasun horretan bat eginik.

Sarrera eta testuingurua

Pastoral Arreta Unitateak ia ez dira aipatu ere egin diagnostikoetan, baina gure elizbarrutian izan duten garapen ezberdinak argi erakusten du gure errealitatean aukera anitzak daudela. Martxan jarri diren tokietan, beren argi-itzalak erakutsi dituzte eta funtsezko galdera hau utzi digute: fedea era komunitario, arduratsu eta misiolarian bizitzeko benetako aukera ote dira? Pastoral Planak bide hau gure parrokiarentzat erantzun egokia ote den argitu nahi luke. Eta, bide batez, nola egin daitekeen posible komunio hori; betiere, Pastoral Unitatean komunitate bakoitzak bizitzarako eta ebanjelizaziorako egiazko laguntza aurkitzen duela ziurtatzen bada.

Erronka nagusiak

Gure elizbarrutian gertatzen ari diren aldaketek **parrokien eta pastoral eremuen antolaketa hausnartzeko** gonbidapena luzatzen digute. Bokazio kopuruaren beherakadak, apaizen zahartzeak eta gure komunitateen sakabanaketak fede-bizitzari laguntzeko modu berriak bilatzera behartzen gaituzte. Egoera honen aurrean, baliabideei etekin hobea ateratzeko, isolamendua gainditzeko eta talde-lana sustatzeko **erronka** dugu, bai apaizen artean, baita laikoekin ere.

Testuinguru honetan, gure egoera korapilatsuari erantzun nahian, **Pastoral Arreta Unitateak** aukera bikain gisa agertzen dira ebanjelizazio berriaren erronkei aurre egiteko. Izan ere, PAUak ez dira apaiz-eskasiari emandako erantzun praktiko huts bat; batasunerako eta ardura partekaturako deia ere badira. Eredu honek gure egiturak berritzera, beste modu batean antolatzea, indarrak batzera eta lankidetzaren guneak sortzea gonbidatzen gaitu, pastoralta-arreta biziberritzeko eta komunitate guztietan hurbiltasunari zein ebanjelizazio-misioari bide emateko.



KONPROMISOA

Txikiak edo sakabanatuak izanda ere, beren fedea pozik eta itxaropenez bizitzeko gai diren komunitateak amesten ditugu; **elkarrekin lan eginen duten parrokia irekiak**, beren dohainak eta baliabideak partekatuko dituztenak; senidetasunak eta Ebanjelioak gidatuta elkarrekin ibiliko diren apaiz eta laikoak.

Eremu bakoitzaren **errealitate pastoralera egokitutako eliz-egiturak** amesten ditugu, apaiz, laiko, erlijioso eta pertsona sagaratuaren arteko koordinazioa eta komunikazioa hobetzeko, baita parrokien eta mugimenduen arteko hartu-emana ere.



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

11. Bigarren zatia, “Elkarrekin txalupan” izenekoak, kristau-komunitatea eraikitzen eta

Pastoral Arreta Unitateak (PAU)

misioa bideratzen duten hartu-emanen aldaketaz aritzen da, bokazio, karisma eta ministerioen arteko loturaren bidez. [...] Laugarren zatiak, "Arrantza oparoa" izenekoak, Elizan batzen gaituzten dohainak trukatzeko eta lotura berriak ehuntzeko modua azaltzen du.



BIDEAK

1. PAU desberdinen ezarpen-maila aztertzea; horretarako, kontuan hartuko dira egungo egoera, gauzatze-lanean aurkitutako zailtasunak, bidea erraztu duten laguntza egokiak, erabilitako tresnak eta azaltzen diren beharrak. Horrek PAUen **diagnostiko eguneratua** emanen digu, hedapen-plan bat garatu ahal izateko.

2. PAUen ezarpena bultzatzea; horretarako, **elizbarruti mailan talde** bat sortuko da, garapena koordinatzeko eta laguntzeko, lortutako aurrerapenen jarraipena egiteko eta guztientzako irizpide bateratuak zehazteko.

3. **Elizbarrutiko parrokia-mapa** berritzea eta ospakizunen kopurua eta tokiak antolatzea, bai hiri-guneetan, bai landa-eremuetan, fededunen eta apaizen kopuruen errealitatera egokitzeko, giza baliabideak nahiz materialak hobeto erabiliz.

4. PAUen garapenari eta ondorioei buruzko **zabalkunde eta prestakuntza-kanpaina** bat egitea, apaizak eta gainerako pastoral-eragileak animatzeko eta Jainkoaren Herri osoan pentsamolde-aldaketa bati bide emateko.

Formazioa

Horren ordeaz, aitortu zeuen bihotzetan Kristo Jauna dela, egon beti prest zuen itxaropenaren arrazoia eskatzen dizuenari erantzuna emateko

1 Pe 3,15

Formazioak zentzua bilatzen dutenei modu koherente eta sakonean erantzuteko gaitasuna ematen digu, gure fedea hitzekin ez ezik, bizitzarekin ere erakusteko. Horrela, formazioa ebanjelizaziorako tresna bikain bihurtzen da: misioaren zerbitzura dagoen eta sineste osoz laguntzen zein aldarrikatzen duen Eliza baten oinarri.

Sarrera eta testuingurua

Laikoak guztiz prestatuak eta hornituak dituen elizbarrutia dugu amets, pastoral-tza-lanean erantzukizunak konfiantzaz eta konpromisoz hartzeko gai izanaren diren laikoak, apaizekin batera arituz eta Elizaren hazkundean nahiz ebanjelizazio-misioan bidelagun izanez. Amets honek gure komunitateko kide bakoitzak bere fedea sakon eta egiaz bizitzeko duen nahia islatzen du, formazioan hazkunde pastoralerako eta espiritualerako bide argia aurkituz.

Aurkeztutako AMIA analisiek garbi erakusten digute formaziorako dei hau ez dela asmo soil bat, premiazko beharra baizik. Laikoentzat, prestakuntza teologiko eta pastoralahitaezkoa da beren fedea ulertu eta bizi ahal izateko, baita Elizan hainbat zerbitzu eta zeregin, erantzukizunez eta ilusioz beren gain hartzeko ere.

Helburu horretara hurbiltzeko, ezinbestekoa da prestakuntza-aukerak modu eraginkor eta malguan zabaltzea, bazter guztietan (baita landa-eremuetan ere) eta pertsona

Formazioa

guztientzat eskuragarri egon daitezen. Gainera, gurasoen, ezkon-gaien eta katekisten behar zehatzak argituz, denek izan dezakete hazteko eta zerbitzuan eraginkorrago izateko aukera bikaina.

Horrela, formakuntzan ematen den urrats bakoitza ebanjelizatzeko-keinu zehatz bihurtzen da: laikoak ongi prestatu, apaizei lagundu eta, azken finean, elkarrekin Eliza biziagoa eta parte-hartzaileagoa eraiki, Kristok utzi digun misioari leial erantzunez.

Erronka nagusiak

Laikoek komunitatean ardura-zerbitzuak konfiantzaz eta erantzukizunez har ditzaten, ezinbestekoa da haiei **prestakuntza teologiko eta pastoral egokia** eskaintzea, bai fedearen ezagutza-mailan, bai konpromiso aktiboari dagokionez. Ez da ezagutza eskuratzea soilik, Elizaren bizitzan besteak zerbitzatzeko eta laguntzeko prest egotea baizik.

Aldi berean, **prestakuntza-programak antolatu eta komunikazio-bide argien bidez ezagutzera eman** behar ditugu, interesdun ororengana iristeko, inor kanpoan gera ez

dadin eta guztiak hazteko eta parte hartzeko gonbidatuta senti daitezen. Sentsibilizazio-lan hau ez da laikoen zeregina bakarrik: apaizek ere kontuan hartu behar dute zein garrantzitsua den fededunei laguntzea eta prestatzera animatzea, prestakuntza komunitate osoarentzako zerbitzua baita.

Era berean, beharrezkoa da **formazioa malgua eta eskuragarria** izatea: online, herriz herri eskaintzen dena, edota modu intentsiboan jorratu daitekeena, beti funtsezko edukia modu praktikoa eta parte-hartzailean helarazteko, denbora edo distantzia-mugak gaindituz.

Behar zehatzen artean hauek nabarmentzen dira (horietako batzuk dagozkien GAI-MULTZOAK ataletan lantzen dira): **katekisten** formazioa (haien lan pedagogiko eta pastoral indartzeko); **ezkongaien** formazioa (ezkontza aurreko ikastaroetatik haratago joanez); **familiaren** formazioa (parrokiaren bizitzan fede-eskola eta ebanjelizazio-eragile izan daitezen); eta, oro har, beren fede-bizitza indartu nahi duten **bataiatu guztien** formazioa.

Erronka hauek gainditzeak Eliza biziagoa, parte-hartzaileagoa eta

misiolariagoa eraikitze bidea emanen digu. Bertan denok, laikoak zein apaizak, elkarrekin, prestatu eta Espirituak bultzatuta, Ebanjelioa hots egin eta bizitzeko bidean ibili ahal izanen dugu.



KONPROMISOA

Eliza sinodal bat dugu amets, **bizitzako etapa eta arlo** guztietan (intelektuala, afektiboa, erlazonala eta espirituala) etengabeko formazioan bizi dena. Bertan laikoak, erlijiosoak eta apaizak, **norberaren karismaren arabera**, zerbitzatzeko prestatuko dira, bizi-bizi mantenduz bai beren fedea, bai Ebanjelioa zabaltzeko eta gizartearen eraldatzeko konpromisoa.



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

80. [...] Bataiatu guztiek behar dute formazio hau, testigantza emateko, misiorako, santutasunerako eta zerbitzurako; horrek argi uzten baitu denon arteko erantzukizuna. Puntu hau are garrantzitsuagoa da ardurak dituztenentzat edota Elizaren bidea argitzen laguntzen dutenentzat.

143. [...] Formazioa osoa, jarraia eta partekatua izan dadila. Helburua ez da soilik ezagutza teorikoak eskuratzea; helburua irekiagoak izatea eta elkartzeko gaitasuna sustatzea da: esperientziak partekatzea eta elkarrekin lan egitea, hausnartzea eta bidea argitzea, bizitutakoaren irakurketa teologikoa egitea.

Formazioa

Beraz, gizakiaren alderdi guztiak ukitu behar ditu (burua, bihotza, harremanak eta bizitza espirituala), baita behar bezala lagundutako esperientzia zehatzak gehitu behar zaizkio ere. [...] Horretarako, gizonetako nahiz emakumeek, laikoek, erlijiosoen, ministro ordenatuek eta seminaristek parte hartu beharko dute elkar-ezagutza eta estimua, elkarrekin lan egiteko gaitasunean hazteko beharrezkoa den formakuntza egokian [...] Beraz, hezitzaileen formakuntza inbertitu behar dugu.



BIDEAK

- 1. Dagoen formazioa bultzatzea eta eskuragarriago egitea** araututako eta arautu gabeko ikasketen bidez (ISCR, Elizbarrutiko Teologia eta Pastoral Eskolak, parroketako saioak eta zonaldeko bilerak). Horretarako, aurrez aurreko ikastaroak, online modukoak eta formazio intentsiboa erabiliko dira, jende gehiagok parte hartzeko aukera izan dezan.
- 2. Laikoak prestatzea liturgia-ospakizunak sustatzeko** eta Hitzaren ospakizunak gidatzeko, apaizaren zain dauden bitartean komunitateen fede-bizitza sendotu dadin; baina beti gogoan izanik Eukaristia dela “kristau-bizitza osoaren iturri eta gailurra” (LG 11).
- 3. Ikaskuntza eta etengabeko formazioa** erraztuko duten material gaurkotuak biltzeko **baliabide gordailu** bat sortzea.

Komunikazioa

Eta elkarri esan zioten:
«Ez al genuen barrua sutan, bidean hitz egiten zigunean eta, **Liburu Santuak azalduz, mintzo ziztaigunean?».**

Lc 24, 32

Emauserako bidean Jesusen hitzek bi ikasle haien bihotzak piztu zituzten bezala, gure elizbarrutiko komunikazioak bataiatu guztien bihotzak berotzea nahi genuke. Helburua ez da soilik informazioa ematea, baizik eta laguntzea, eragitea eta ilusioa sortaraztea, pertsona bakoitzak senti dezan Elizaren misioan parte hartzeak bere bizitza eta komunitatearena eraldatzen eta aberasten duela.

Sarrera eta testuingurua

Aurkeztutako AMIA analisiak komunikazioa —bai barnekoa, bai kanpora eskaintzen duguna— indartzeko beharra azpimarratu du, gure elizbarrutiak bere ebanjelizazio-misioa modu eraginkorragoan bizi eta transmititu dezan:

- Barne-mailan, beharrezkoa da Elizako errealitate desberdinen arteko koordinazioa eta talde-lana hobetzea, baita entzute aktiboa sustatzea ere, batasun egiazko eta emankorra eraikitze bidea emanen duena.
- Kanpo-komunikazioari dagokionez, ezinbestekoa da komunikabideetan eta gizarte-arloan nola agertzen garen aztertzea, bai eta Elizaren mezua gizarte osoari hurbiltzeko bide digital eta sozial berrietara zabaltzea ere.

Elizbarrutian benetako batasunerantz aurrera egin nahi

Komunikazioa

dugu. Ebanjelioa aldarrikatzeko misioan gure Elizaren batasun hau sendo dadin, nahi genuke mugimendu eta talde guztiek beren eliztar nortasuna modu komunitario, antolatu eta aberasgarrian bizitzea.

Erronka nagusiak

Gure elizbarrutiaren erronka handienetako bat **barne-komunikazioa** sendotzea da, **apaizen, laikoen eta parrokien arteko koordinazio emankorra** **sustatz**. Hainbestetan talde-lana oztopatzen duen pastoral isolatua eta sakabanatua gainditu nahi dugu. Horretarako, lankidetzeta eta elkarri entzutea gure komunitate-bizitza aberasten duten ohitura bihurtzea nahi genuke.

Kanpora —gizartera— eskaintzen dugun komunikazioa da gure beste erronka nagusia. Ebanjelioaren mezua gaurko gizartera hurbiltzea dugu zeregin, hizkuntza berriak eta komunikabideak erabiliz, egungo munduarekin modu positiboan azaltzen den Eliza agertzeko.

Era berean, ezinbestekoa zaigu **karisma, mugimendu eta parrokien arteko batasuna** suspertzea,

esperientziak eta ekimenak partekatzeko aukera ematen duten esparruak sortuz. Horrela, eliza-errealitate bakoitzak elkar aberastu eta ebanjelizazio-misioan elkarrekin ibili ahal izanen du.



KONPROMISOA

Komunikazioaren bidez, denak argitzen, bultzatzen eta batzen dituen Eliza dugu amets, **komunioa sendotuko duena** eta Ebanjelioarekin **bat datorren benetako mezua zabalduko duena**.

Gure arteko **antolakuntza, entzute-ahalegina eta komunikazioa** —apaiz, laiko, parrokia eta mugimenduen artekoa— hobetzea ere dugu amets, elkarrekin bide egiteko.

Azkenik, Jesusen Bizi-Hitza gaur egungo gizartera modu emankorrean ekartzea dugu amets, garai aldakor hauetara hurbilduz.



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

4. [...] Batasuna isilean hazten ari da Jainkoaren Eliza Santuaren magalean, munduarentzat batasun-profezia bihurtuz.

1. [...] “Espirituaren elkarriketa” bizi izan dugularik eta elkarri entzun diogularik, Beraren presentzia sumatu dugu gure artean: bere herrian, desberdintasunak uztartuz, batasuna sortarazten jarraitzen duen Espiritu Santuarena, alegia.



BIDEAK

1. Elizbarrutiko Komunikazio Plana lantzea nor garen eta zer egiten dugun behar bezala ezagu-

tarazteko. Plan honen asmoa barne eta kanpo-komunikazioa hobetzea izanen da, parrokien, taldeen eta ordezkaritzen arteko harremana eta antolakuntza erraztea, eta komunikabideetan Elizaren ikuspegi positiboa indartzea. Era berean, gertakari edo eztabaiden aurrean azkar eta gardentasunez erantzuteko bideak zehaztuko ditu.

2. Elizbarrutiko webgunea aztertu eta berritzea, gure Eliza partikularren leiho eta berri-gordailuko atea atsegingarriagoa izan dadin, barne-komunikazioa biziberitzea, parte-hartzea sustatzeko eta gardentasuna lortzeko.

3. Sare sozialetan dugun presentzia hobetzea, Elizaren bizitza ezagutzera emateko eta ebanjelizatzeke, jende berriarengana —bereziki gazteengana— iritsiz. Horretarako, Komunikabideen Ordezkaritzak edukien koordinazioa zainduko du eta komunikazio-bide ofizialak eratuko ditu (hala nola WhatsApp eta posta elektroniko korporatiboak), fededunekiko eta komunitateekiko harremana errazteko.

Laikoak

Bada, zuek Kristoren gorputz zarete eta zuetako bakoitza gorputz horren atal.

1Kor 12,27

Gorputzaren eta bere atalen irudiak argi adierazten du laikoen boka-zioa eta misioa Elizan. Inor ez dago soberan eta inor ez da baztertzekoa: bataiatu bakoitzak dohain berezi eta ordezkazina eskaintzen dio komunitateari. Laikoa ez da eranskin soil bat, Elizaren izatearen eta misioaren funtsezko atala baizik (ikus. AA 1). Laiko bakoitza, bere dohain eta karismekin, ebanjelizazio-misioan arduradun izatera eta Ebanjelioaren bidez mundua berritzera deitua dago.

Gainera, Vatikanoko II. Kontzilioak gogorarazten digun bezala: “munduko zereginekin estu-estu loturik daudenez gero, laikoei dagokie bereziki zeregin horiek argitzea eta bideratzea, etengabe Kristoren asmoen arabera egin eta garatu daitezen eta Kreatzailearen

eta Berreroslearen aintzarako izan daitezen” (LG 31 b).

Pastoral Plan honek laikoen prestakuntza, ardura partekatua eta gizartean duten eragina indartu nahi du; izan ere, ebanjelizatzea ez da gutxi batzuen lana, elkarrekin bidean doan Jainkoaren Herri osoarena baizik (ikus. AA 2-3).

Sarrera eta testuingurua

Elizbarrutiko hainbat eremutan egindako AMIA analisiak argi utzi du laikoen kristau-nortasuna indartu beharra dagoela, bai bizitza pertsonalean, bai gizarte eta komunitate-konpromisoan fruitua eman dezan. Egia da gure elizbarrutiaren indarguneen artean baditugula sinodalitate-espírituaren laiko konprometitu eta arduratsuak.

Era berean, beharrezkoa da laikoen partaidetza handiagoa sustatzea, fededun arduratsuz osatutako komunitate baterantz jotzeko. Bertan, laikoek, apaizek eta erlijiosoek elkarrekin eta gogotsu parte hartu beharko

lukete Elizaren misio berean.

Ikuspegi honek Eliza irekia-goia eskatzen digu, sinesgabeekin elkarriketan murgilduko dena eta gizartean presentzia berria izan duena, Berri Ona koherentziaz eta itxaropenez aldarrikatu ahal izateko. Laburbilduz, laiko konprometituak behar ditugu: gizartean agerikoak direnak, Elizako partaide sentitzen direnak eta bizitzako arlo guztietan —pertsonalean, familian, lanean nahiz gizartean— murgilduta daudenak. Komunitate atsegin eta arduratsua bizi-berritzeko gogoia duten laikoak, alegia.

Erronka nagusiak

Era berean, nabari da **pastoralgintza**ren alorra zatituegi dagoela —katekesia, liturgia eta gizarte-ekintza, bakoitza bere kasa— eta hori oztopoa da, noski, fedea eta bizitza uztartuko dituzten ibilbide osoak bultzatzeko. Lehen aipatutako indarguneak gorabehera, lehentasuna eman behar diogu kristau-hastapeneko prozesu sendo eta jarraituak sustatzeari; hau da, bataiatuari haurtzarotik hasi eta helduaroko bokazio-erantzun sakon bateraino lagunduko dion bideari.

Horrek guztiak **pastoralgintza berritzera** garamatza: sakramentu-zer-

bitzuetan soilik oinarritutako Elizatik, Jaunaren maitasunaren lekuko diren eta itxaropena daramaten ikasle eta senideek osatutako Elizara igartzeko. Berritze honek, besteak beste, klerikalismoa gainditzea, parroketan eta mugimenduetan laikoen gidaritza sustatzea eta familiei eskaintzen zaien laguntza indartzea eskatzen du —fedearen transmisioaren oinarritzko gune diren aldetik—, gure parrokia-komunitateetako familia-egoeren aniztasuna onartuz.



KONPROMISOA

Beren kristau-nortasunean eta baitaio-duintasunean sakontzen duten laikoak ditugu amets, fedearikiko konpromisoa berriro dezaten, bai bizitza pertsonalean, bai komunitatean. Laiko horiek, apaiz eta erlijiosoekin batera, ebanjelizatze arduraren beren gain hartzeko gauza izanen dira; modu horretan, Jainkoarekiko zintzotzagoa eta urrunen ditugun senideentzat esanguratsuagoa den **Eliza** eraikitze-ko aukera izanen dugu.

Laikoak



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

11. [...] Misorako deia eta konbertsiorako deia bat datoz; toki-ko Eliza bakoitza eta Eliza osoa berritzeko deia da, 'Evangeli Gaudium' adierazpen apostolikoak (ikus EG 30) gogorarazten duen bezala.

77. Gaur egungo premia pastoralen aurrean, fededun laikoei —gizon zein emakumeei— parte hartzeko aukera gehiago eskaini behar zaizkie. Horretarako, zerbitzu eta ministerio mota berriak aztertu behar ditugu, elkarrekin lan eginez eta norberak bere ardurak erantzukizunez hartuz.[...].



BIDEAK

1. Otoitz-taldeak, erretiroak eta adorazio-guneak erraztea parrokia-unitate (PAU) guztietan. Horrela, **laikoek bizitza espirituala sakontzeko, fedearrekiko konpromisoa berritzeko eta komunitatean parte hartzeko indarra** eskuratu dezakete. Era berean, parroketan hausnarketa bibliko eta teologikoko taldeak sortzea komeni da, laikoei Ebanjelioa barneratzen eta eguneroko bizitzan gauzatzen laguntzeko.
2. Parrokietan **administrazioa eta finantzak antolatzeko laiko-taldeak** sortzea, laikoek arlo horietako ardura beren gain har dezaten eta apaizak beren misio pastoralean zentratu daitezen. Ahal den neurrian komunitate guztietan **parrokia-kontseilu pastoralak** sortzea eta indartzea, laikoen parte-hartzea egiazkoa eta eraginkorra izan dadin.



3. **Elizbarrutiko talde bat martxan jartzea laikoen parte-hartzea sustatu eta bideratzeko**, erabakiak hartzerakoan ardura partekatua bultzatzeko eta haien eginkizun aktiboa indartzeko.
4. Elizaren misioan **laikoek duten ardura partekatua jabetzeko kanpaina bat abiarazi**, bai Elizaren barruan, bai kanpoan. Horrek laikoen parte-hartze handiagoa eskatzen du Elizaren bizitzan, eta baita gizartean duten zeregina bultzatzea ere (familian,

lanean eta arlo sozialean), prestakuntza eta bide egokiak eskainiz.

5. Dauden **laikoen ministerioak** (akolitoa, irakurlea eta katekista) sustatu eta sendotu, Eliza ateak zabalik dituen etxea izan dadin eta laikoek beren eginkizun aktiboa bete dezaten.

Behartsuak

**Benetan esaten dizuet:
nire senide txikien hauetako
edozeini egin zeniotena,
niri egin zenidaten**

Mt 25, 40

Jesusek gogorazten digun bezala, behartsuak eta babesgabeak ez daude Elizaren bizitzaren bazterrean, haren arretaren erdigunean baizik. Haiek Kristoren presentzia dira gure artean eta, aldi berean, fedea apaltasunez, itxaropenez eta Jainkoarenganako konfiantzaz bizitzen lagun diezagukete. Horregatik, gure Pastoral Plan honek behartsuen aldeko lehentasunezko hautua egiten du Ebanjelioan oinarritutako funtsezko konpromiso gisa. Ahulenak onartu, babestu eta lagundu behar ditugu, haiengan Kristoren aurpegia ikusiz; horrek bihotza berritzera eta karitate eraginkorrera deitzen gaitu. Izan ere, “Behartsuen aurpegi zaurituan, errugabeen sufrimendua eta,

beraz, Kristoren sufrimendu bera aurkitzen dugu agerian”.

León XIV, DT 9

Sarrera eta testuingurua

Elizak ezin ditu inoiz ahanzi pobreak eta behartsuak bere egitekoan. Gure elizbarrutiak indargune bat eta erreferentzia-puntu fidagarri bat ikusten du Gizarte Pastoralizako erakunde eta ordezkaritza guztietan, Ebanjelioak eskatzen digun karitate eta gizarte-konpromiso hori bultzatzeko. Eliza benetako integrazio-gune eta harre-ra-leku izatea nahi dugu; behartsuek laguntza materiala ez ezik, babes espirituala ere jaso dezaten bertan, gure eliz elkarteko kide oso izanez. Gure helburua behartsuei zerbitzu emateko konpromisoa hartuko duen elizbarrutia izatea da, Jainkoaren Erreinuko balioekin bat datorren egiazko gizarte-erlaketak bilatuz.

Erronka nagusiak

Elizak beti izan behar du Kristo go-

goan, eta horregatik, **bere misioaren erdigunean azkenekoak jartzera** deituta dago: ahul eta bazterrean daudenak, edo baztertuak izateko arriskuan bizi direnak. Gure konpromisoa behartsuen aldeko apustu sendoa egitea da; kanporantz ateratzen den Eliza izanik, hurbiltasunez eta elkartasunez harrera egiten eta bidelagun izaten dakiena.



KONPROMISOA

Eliza abegikorra dugu amets, fede-al-darrikapena (*kerigma*) eta fede-os-pakizuna (*liturgia*) ez ezik, zerbitzua (*diakonia*) ere bultzatu nahi duena, bere ebanjelizazio-misioaren eta justizia-bilaketaren funtsezko osagai gisa.

Eliza inklusiboa eta hurbila dugu amets, behartsuen aldeko apustu garbia eginen duena eta Erreinua eraikitzeke eta inguratzen gaituzten bekatzeko errealitate zein egiturak aldatzeko konpromisoa hartuko duena.

Parrokia abegikor eta misiolariak ditugu amets, Kristoren maitasuna guztiei zabaltzeko gogoz daudenak; pertsona guztiei, baldintzarik gabe, irekiak daudenak, eta sufritzen ari

direnak, babesgabeak, pobreak eta gizarteak baztertutakoak erreferentzia-puntu gisa dituztenak.



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

19. «Txiroak dira Jainkoaren bihotzeko kuttunak» (EG 197), [...] Eliza pobreekin pobre izatera deitua dago, askotan horiexek baitira fededun gehienak. Deituta gaude haiei entzutera eta ebanjelizazio-lanean protagonistatzat hartzera, Espirituarengandik jasotzen dituzten karismak elkarrekin argitara ateratzen ikasiz.

56. Baztertuta eta txokoratuta daudenei entzuteak Elizaren kontzientzia pizten du; horrela jabetzen da bere eginkizunaren parte dela zauritutako harreman horien ardura hartzea, Jaiunak, “Bizirik dagoenak”, senda ditzan. [...]

Behartsuak



BIDEAK

1. **Gizarte-ekintzako erakunde eta ordezkaritza guztien arteko lotura sendotzea, denen artean hobeto koordinatuz eta baliabideak nahiz esperientziak partekatuz.** Helburua elkarri laguntza egonkorra ematea eta guztion parte-hartzea bultzatzea da.
2. **Elizaren Doktrina Sozialari buruzko formazioa** zabaltzea parrokia, artzapezbarruti eta PAUetara, bai eta pastoral-taldeetara ere. Funtsezkoa da irakaspen mota hau pastoral-eragile ororen prestakuntzan txertatzea.
3. **Gazteei pobrezia-testuinguruetan parte hartzen laguntzea**, bai gizarte-konpromisoaren inguruko prestakuntzan, bai mota honetako esperientzietan. Zerbitzuaren bidez beren fedea sendotu eta behartsuenen aldeko kristau-sentiberatasuna garatu dezaten.



Familiak

Orduan, Jesus beraiekin Nazaretera jaitsi zen, eta beraien menpe bizi izan zen. Amak gogoan hartzen zituen gertakari hauek guztiak.

Lk 2, 50-51

Familia bizitzaren eta fedearen eskola dela erakusten digu Jesusek: haurtzarotik, bere familiaren magalean, hurbiltasuna eta elkarzaintza zer diren bizi izan zuen, Maria amarekin eta Jose aitarekin batasunean eta onespenean haziz. Gure elizbarrutiko pastoral lanaren esparruan familia-pastoraltza bultzatu nahi dugu, etxe bakoitza babesteko eta familia bakoitzari laguntzeko gure Elizaren bihotz izan dadin.

Sarrera eta testuingurua

Familia dugu fedea, maitasuna eta elkarrenganako ardura bizitzen ikas-terko lehenengo esparrua. Hala eta guztiz ere, gaur egungo errealitateak erakusten digu familia askok erronka handiei aurre egin behar dietela: laguntza falta giza hezkuntzan eta hezkuntza espiritualean, zailtasunak fedea eguneroko bizitzan txertatzeko eta hauskortasun edo krisi-egoerak hainbat senar-emazteren artean. Hori dela eta, beharrezkoa da familien, mugimenduen eta komunitateen arteko harremanak estutzea, horrela familia bakoitza hazteko, elkarri laguntzeko eta fedea zabaltzeko gune epela izan dadin.

Erronka nagusiak

Familia da fedea eta kristau-balioak transmititzeko lehenengo eremua, baina gaur egun erronka handiak ditu aurrean. Behar-beharrezkoa dugu familiei alderdi guztietan laguntzea —ezkongaietatik hasi eta seme-alaben hazkunderaino—. Haiei heziketa

Familiak

gizatiarra eta espirituala eskaini behar diegu, behar duten indarra jaso dezaten eta fedea eguneroko bizitzan bizi ahal izateko bidea erraztu dadin. Era berean, senar-emazte gazteei eta krisialdian daudenei arreta berezia eskaini behar zaie; horretarako, laguntzeko, entzuteko eta bide egokiak erakusteko guneak prestatu behar ditugu. Giza bizitzaren pastoraltzak biziari guztietan bizia zaintzera eta balioestera gonbidatzen gaitu: jaio-tzeko dauden haurren babesetik hasi eta adinekoen zaintza eta laguntza-raino. Betebehar hau elizbarrutiko ekimen pastoraletan txertatzea nahi-taezkoa da.



KONPROMISOA

Benetako etxeko Eliza diren fami-lia kristauak ditugu amets: fedea transmititzeko gune eta gure gizar-tean kristau-bizitzaren legami izanen direnak. Ezkontzaren eta familiaren garrantzia aitortzeaz gain, haiei lagundu, babestu eta formakuntza eskaini nahi diegu; horrela, etxe

bakoitzak Elizan eta gizartean bizitza eta itxaropenaren iturria izateko gi-darritza, erosotasuna eta adore-hitzak aurkituko ditu.



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

64. [...] Bereziki, azken urteotan gero eta garbiago ikusten dugu pastoraletan familiak direla fami-lia-ministerioaren protagonistak, eta ez hartzaile edo bezero soilak. Horregatik, elkarrekin eta elkarla-nean aritu behar dute, baita haur eta gazteen heziketan bidelagun ditugun Elizako erakundeekin batera ere.



BIDEAK

1. Familia-mugimendu eta taldeek **senar-emazte eta familiei lagun-tzeko** egiten duten lana zabaldu eta osatzea. Horretarako giza heziketa eta prestakuntza espirituala es-kaintzeko programak garatzea, bile-rak, hausnarketak, otoitz -saioak eta guraso- eskolak antolatuz.
2. **Ezkontzari eta ezkonberriei laguntzeko** Familia pastoraltzak prestatutako ibilbidea hedatu eta bultzatzea.
3. Elizbarrutian **giza bizitzari buruzko ikuspegi pastoral** zehatz bat abiaraztea, Vatikanoko Laiko, Familia eta Bizitzarako Dikas-terioak 2025ean argitaratutako “Bizitza beti da ongia” dokumen-tuaren ildotik.
4. **Krisialdian dauden senar-emaz-teei laguntza eta babesa** es-kaintzen dieten elizbarrutiko erakundeen berri ematea eta ezagutaraztea.



Gazteak

Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen.

Jn 20, 8

Ikusi eta sinetsi zuen ikaslearen antzera, gazteak Kristoren presentzia bizia norberaren bizitzan aurkitzera deituta daude. Ebanjelioarekin topo egiteak gazteengan fedea esnarazten du eta Elizaren misioari lotzera gonbidatzen ditu. Gida egoki batekin, eurek ere “ikusi eta sinetsi” ahal izanen dute, erronka eta aukeraz betetako mundu honetan fedearen argitan bereizteko, erabakitzeke eta ekiteko gauza izan daitezen.

Sarrera eta testuingurua

Parrokia askotan gazte gutxi dabil eta haien parte-hartzea mugatua da; horrek erronka handia dakar fedea transmititzeko eta bizitzeko orduan. Haietako asko Elizaren balioetatik urrun egon daitezkeen kultura eta balio digitaletan murgilduta bizi dira. Horrek, ordea, zaildu egiten du haiekin konektatzea eta haien interesa piztea. Hala ere, haien indarra, sormena eta ilusioa altxor bikainak dira, eta konpromiso bizia nabaria da dagoeneko zenbait Eliza mugimendutan. Premiazkoa da gazteei laguntza ematea, elkartzeko, trebatzeko eta parte hartzeko guneak eskainiz; era berean, behar-beharrezkoa da etxetan fedearen transmisioa suspertzea, Elizara hurbiltzeko hazi gisa.

Erronka nagusiak

Gazteen eta Elizaren arteko harremanak hainbat erronkari aurre egin behar die. Neurri batean, gazteen artean **Elizarekiko dagoen ikuspegi negatiboak** haien parte-hartzea eta

fedea bizitzarekiko lotura mugatzen du. Haurtzaroa eta gaztaroko lehen urteak igaro ondoren, kateke-si-saioak amaitzearekin batera, asko Elizatik eta bere jardunetik aldentzen dira.

Pastoral lanean poz eta freskotasun falta somatzen dugu eta horrek zaila egiten du gazteekin konektatzea. Gainera, kristau balioetan oinarritutako eredu esanguratsuak falta zaizkigu. Erabiltzen ditugun tresnak eta bideak ez dira haientzat erakargarriak eta sarritan kultura digitalak hartzen du komunitate-bizitzaren eta espiritualtasunaren lekua.

Gogoan izan behar dugu, era berean, gaur egungo gazteek maitatzeko, konpromisoa hartzeko eta frustrazioari aurre egiteko dituzten zailtasunak, askotan **maitasun-zauri sakonen ondorioz**. Gazte gutxik hartzen du parte elkarkidetasun-ekintzetan, hala nola Cáritasen, gizakien salerosketaren aurkako lanetan edo Espetxe Pastoraltzan, eta horrek agerian uzten du konpromisoan sendotuko dituen eta lagunduko dien bide baten beharra.

Testuinguru honetan, ezinbestekoa da **sare sozialak eta baliabide digitalak erabiltzea** gazteengana zein helduengana hurbiltzeko. Bide berri horien bidez ere bultzatu behar dugu ebanjelizazio-lana, fedea modu

hurbil, esanguratsu eta eraldatzaileran bizitzeko guneak sortuz.



KONPROMISOA

Gure ametsa da gazteek —Elizaren oraina eta geroa— Ebanjelioaren poza eta freskotasuna aurkitzea eta, bide horretatik, fedearen misteriora hurbiltzea. Beren errealitatetik abiatuta eta beren hizkera erabiliz, Jesusekin topo egiten lagunduko dieten eredu eta erreferentzia puntu esanguratsuak behar dituzte. Gazteengana iritsi nahi dugu eta haiei lagundu hazkunde prozesuan, beren beharrak eta zauriak gogoan izanik, eta bizitzari zentzua, edertasuna, egia eta bizipoza aurkitzeko duten egarri sakonari erantzunez.

Gazteak



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

62. [Gazteei] Ezinbestekoa da arretaz eta pazientziaz jositako bidelaguntza eskaintzea; [...]

113. Kristau kutsua duten komunitate eta talde digitalak, batez ere gazteek sortutakoak, honako ildo hauek landu behar dituzte: kidesun-loturak nola sortu hausnartzea, topo egiteko eta elkarrizketarako guneak sustatzea, parekideen arteko prestakuntza eskaintzea eta Eliza izateko modu sinodal bat bultzatzea.



BIDEAK

- 1. Gazte Pastoraltza** (elizbarrutiko gazte guztien topagune gisa) eta **Unibertsitate Pastoraltza indartzea**. Erakunde hauek Kristorekin topo egitea errazteko eta gure Elizako gazte-talde anitzen hazkundeari laguntzeko prestakuntza-programak eta jarduera erakargarri eta erabilgarriak sustatzen eta bideratzen dituzten erakundeak izan beharko lirateke.
- 2. Bokazioa argitzeko prozesua elizbarrutiko eta parrokiarako jardueretan txertatzea**, gazteek beren bokazio-bidean arreta egokia jaso dezaten, bileren, erretiroen eta laguntza pertsonalaren bidez.
- 3. Gazteen fede-hazkundean oinarritutako formazio-egitasmo oso bat** eratzea; horretarako, hurbileko ereduak erabiliko dira eta haien zat interesgarri diren gaiak (psikologia, espiritualtasuna, bizi-galderak) kontuan hartuko dira.

Apaizak

Ez ninduzuen zuek ni aukeratu; neuk zintuztedan zuek aukeratu. Eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela

Jn 15, 16

Kristok berak aukeratzen ditu apaizak eta bere herriaren zerbitzari izateko bidaltzen; Ebanjelioa hots egitera eta komunitatearen bizitzan fruitu ugari ematera deituta daude. Aukeratu izana ez da pribilegio bat, Jainkoaren maitasunetik sortzen den misioa baizik, eta misio honek beren ministerioa gogo biziz, pozik eta sen pastoralaz bizitzera gonbidatzen ditu.

Sarrera eta testuingurua

Gaur egun Elizan, apaizaren zereginak erronka garrantzitsuei egin behar die aurre, eta horrek hausnarketa eta berritze sakona eskatzen du. Aipatutako AMIA analisiak agerian utzi ditu bokazioen eskasia, apaiz-taldearen zahartzea eta parrokia guztiak behar bezala atenditzeko zailtasunak, batez ere gure herri eta auzo sakabanatuetan.

Gainera, begi-bistakoak dira apaiz-lanari buruzko jarreraren eta ikuspegiaren ditugun erronkak: klerikalismoaren arriskua, administrazio-lanen gehiegizko zama eta isolamendua, baita apaizen arteko komunio eta koordinazio falta ere; horrek guztiak elizbarrutiko pastoral ekintzaren eraginkortasuna muga-tzen du. Apaizgoa berritzeko, beraz, ezinbestekoa da elizbarrutiko espiritualtasun sendoa eta komunio-sena sustatzea, horrela apaizek Jainkoaren herriaren beharrei modu hurbilago eta eraginkorragoan erantzun diezaioten.

Apaizak

Gure Elizan sinodaltasuna eta erantzukizun partekatua lortu nahi badugu, ezinbestekoa da apaizaren eginkizunaz hausnartzea, laikoek komunitatearen bizitzan eta misioan duten parte-hartzea sustatuz. Era berean, behar-beharrezkoa da laguntza espirituala, apaizen arteko anaitasuna eta ebanjelizazioarako konpromisoa indartzea gaur bizi dugun testuinguru aldakor eta erronka handiko honetan.

Erronka nagusiak

Gure elizbarrutiko apaizen bizitzak eta ministerioak hausnarketa eta berritzea eskatzen duten erronka sakonei aurre egin behar diete. Egia da gure apaizak beti prest daudela, konprometituak direla eta buru-belarri emanak lanean (batez ere herri txikietan eta landa-eremuetan nabari da hori). Hala ere, bokazio-eskasiak, apaizen zahartzearekin batera, premiazkoa egiten du ministerioa biziberritzea; horretarako, ezinbestekoa da deia sentitu dutenei gertuagotik laguntzea eta bokazioa argitzeko prozesuak tinko babestea, batez ere gazteen artean.

Horri guztiari gehitu behar zaio apaizen **etengabeko prestakuntza**

eguneratuaren garrantzia, gai teologiko eta pastoralai ez ezik, gidaritzarako, antolakuntzarako eta bidelaguntzarako trebetasunei ere erreparatuz, gaur egungo munduak agertzen dituen beharrei modu eraginkorragoan erantzun ahal izateko.

Kontuan hartu beharreko beste arrisku bat Elizaren bizitza pobretzen duen klerikalismoa da. Pastoral-tza-ikuspegi irekiago eta partekatuago batek —laikoei gidaritza eta ardura lanak emanez— apaizei zama arinduko die eta kristau-elkarte osoaren egitekoa aberastuko du.

Horrekin batera **komunioa eta talde-lana indartzeko beharra** agerian geratzen da, laikoen eta apaizen artean senidetasuna sustatuz eta koordinazioa hobetzen eta proiektu bateratuak osatzen laguntzen duten pastoral-tza-irizpide amankomunak ezarriz. Hori guztia apaizen bokazioa berritzen eta Ebanjelioa aldarrikatzeko misio partekatuan errotzen duen elizbarrutiko apaiz-espiritualtasun bizi batean oinarritu behar da.



KONPROMISOA

Elkarlana eta konpromiso partekatua bilatzen duen Elizan **apaiz-ministerioa babestea eta indartzea** dugu amets. Beren bokazioari eutsiz eta giza zein espiritu-bizitzan haziz, guztiongana hurbiltasunez eta pozez iristeko gauza izanen den apaiz-taldea dugu amets. Gure gogoia da apaizek, bakardadea eta isolamendua gaindituz, anaitasunari eta talde-lanari eusteko, eta, aldi berean, zintzo zerbitzatzen jarraitzeko behar duten laguntza komunitatean aurkitu dezatela. Testuinguru aldakor eta zail honetan, gaur egungo erronkei erantzuteko eta ebanjelizazio-konpromisoari eusteko beharrezkoa duten prestakuntza integrala eta etengabea jaso dezatela dugu helburu.

Bokazioen ardura denon artean hartuko duen Eliza dugu amets. Bide honetan ezinbestekoa da apaizgaiei itxaropenez laguntzea eta adineko apaizak esker onez zaintzea. Gure desioa espirituz eta praktikaz berri-tutako apaiz-taldea da, Jainkoaren herriaren bihotzean komunio-sei-

nale eta misiolari izateko gai izanen dena.



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

72. [Apaizek] presbiterio-anaitasuna bizitzeko eta pastoral-zerbitzuan elkarrekin ibiltzeko deia dute.

74. [...] Eginbeharrak eta ardurak modu antolatuagoan banatzeak, baita ministerio ordenatuari bereziki zer dagokion eta zer eskuordetu daitekeen ausardiaz bereizteak ere, bidea emanen du ministerio hori modu osasuntsuago eta dinamikoagoan betetzeko, bai maila espiritualean, bai maila pastoraletan.

148. [...] ministerio ordenatuan arituko direnak aukeratzeko eta heitzeko ibilbideak, modu sinodalean jorratu behar dira.

Apaizak



BIDEAK

1. Apaiz-taldearen sakabanaketa saihestea, **apaizen arteko anaitasuna, elizbarrutiarekiko lotura eta laikoekiko elkartasuna** landuz. Helburu hori lortzearen komenigarria da apaizen arteko elkarbizitzarako eta elkarri laguntzeko guneak mantentzea, beharrezkoak diren gune berriak sortaraztea eta laikoen eta artzaien arteko loturak indartzea.
2. Apaizen **prestakuntza espirituala eta intelektual**a bultzatzea.
3. **Laikoen artean apaizen zaintza eta arreta sustatzea, elkarren arteko lana bultzatuz.** Zehazki, parrokia edo pastoral-unitate bakoitzean pastoral eta ekonomia-kontseiluak martxan jarri behar dira; era berean, laikoek artzapezbarrutiko bileretan zein apaizen formakuntza-saioetan parte har dezaten bultzatzea.

4. **Laguntza eta hurbiltasun berezia eskaintzea bakardadean dauden apaizei**, batez ere apezpiku, bikario, artzipreste eta apaizkideen partetik. Era berean, apezpikuak apaizentzat “benetako aita, anaia eta laguna” izan behar du, bereganako eta apaizen arteko batasuna bultzatuz. Hori guztia nahitaezkoa da ebanjelizazio eraginkor baterako.



Bizitza sagaratua

Ez dira mundukoak, neu ere mundukoa ez naizen bezala. Har itzazu zeuretzat egiaren bidez: zure mezua egia da. Mundura bidali ditut, zuk bidali ninduzun bezala.

Jn. 17, 16-18

Bizitza sagaratuak, aholku ebanjelikoen eta Jaunari egindako sagaratzearen bidez, beste logika baten arabera bizi daitekeela erakusten digu: Jainkoaren doakotasunaren, egiaren eta maitasunaren logikaren arabera, alegia. Komunitateen ibilbidea argitzeko eta laguntzeko bidalia, bere egitekoa presentzia profetikoa izatea da; Eliza osoari gogorarazten dio errotik Kristorengana lotuta dagoela eta historiaren bihotzean itxaropenez zerbitzatzeko deia duela.

Sarrera eta testuingurua

Bizitza sagaratua, bere adierazpide ezberdinetan, opari bat da Eliza-arentzat eta munduarentzat. Bere presentziak gure elizbarrutiaren ibilbidea aberasten du, Ebanjelioa osotasunez bizitzea posible dela erakutsiz. Bizitza sagaratuko kideek beren bizitzaren bidez gogorarazten digute kristau-bokazioa, funtsean, Kristo zerbitzatzeko eta Berari erabat emanak jarraitzea dela. Haien komunitateak —misio, espiritualtasun eta karisma ezberdinekin— indar isil bezain emankorra dira, Jainkoaren herri osoari eutsi, bultzatu eta itxaropen bideak zabaltzen dizkiotenak.

Erronka nagusiak

Gure elizbarrutiko bizitza sagaratuak aurre egin behar dio bere misioa eta testigantza zalantzan jartzen duten erronkei. Beharrezkoa da **pertsona sagaratuen, apaizen eta laikoen arteko komunio-loturak sendotzea**, bakardadea gaindituz eta elizbarrutiko pastoraltza aberastuko duten lan-

Bizitza sagaratua

kidetza-esparruak zabalduz. Haien presentzia ikusgarriago egiteko deia dugu: horretarako, saiatu egin behar dugu Jainkoari eta pobreenen zein ahaztuenen zerbitzura eskainitako bizitzaren balio profetikoa erakusten; era berean, bizimodu hau **belaunaldi berrientzat itxaropen-bide gisa** proposatzen ahalegindu behar dugu.

Bokazio-pastoraltza, beraz, premiazko zeregina da, gazteei hurbiletik eta benetan laguntzeko bide gisa. Era berean, ezinbestekoa da **pertsona sagaratuen etengabeko presuntakuntza** sustatzea, egungo kultura eta pastoraltza-erronkei erantzun ahal izateko, eta karismen aniztasunagure misio partekatuaren aberastasuna dela aitortzeko.

Azkenik, behar-beharrezkoa zaigu komunitate askoren zahartze eta hauskortasun-errealitateari samurtasunez heltzea, haien testigantzak Elizaren bihotzean argi eta emankortasun-iturri izaten jarrai dezan.



KONPROMISOA

Elizbarrutiko eta parroketako pastoral-mugimenduan guztiz **txertatutako bizitza sagaratua** dugu amets, modu sinodalean bere presentzia behar bezala errespetatuz eta ebanjelizazioaren zerbitzurako dituen dohain eta karismak partekatuz; bai kontenplazioan, bai apostolutza-lanean. Dena **Jainkoaren Erreinuaren zerbitzurako izanen da, bataiatu guztiekin partekatutako misioan**.



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

65. Bere ahots profetikoaren bidez, bizitza sagaratuak Eliza eta gizartea astintzeko deia du. Gaur egun haien komunitate

asko kulturarteko laborategi dira eta profezia bihurtzen dira Elizarentzat eta munduarentzat.

77. [...] Bizitza sagaratuko kideen bizitzari eta karismein onarpen eta babes handiagoa ematea, eta beraiek Elizaren gidaritza-karguetan eta zerbitzuetan parte hartzea.

118. [...] Institutuak eta gainerako taldeak (elkarteak, mugimenduak eta komunitate berriak) bertako Elizarekin elkarlanean aritzera deituta daude, sinodaltasunaren dinamismoan parte hartuz.



BIDEAK

1. Elizaren komunikabideetan **bizitza sagaratuaren errealitate anitza islatzea**. Izan ere, haien misio eta ebanjelizazio-lanaren bidez, gazte, familia eta heldu

asko hazten dira fedean, otoitzean eta gizarte-konpromisoan. Era berean, elkar-pastoraltzan koordinazioa eta lankidetzaren indartzea, Nafarroako Elizaren bizitzako eskaintza guztiak ezagutzera emateko.

2. **Bizitza sagaratua**, bakoitzaren karismaren arabera, parrokia, elizbarruti eta pastoral-kontseiluen egitasmoetan txertatzea. Modu horretan, Elizaren misio paregabea parte hartuz, elkar aberastu eta indartu, eta misioa koordinatu zein berritu ahal izanen dugu.

3. Parrokia-zerbitzuetan bizitza sagaratua aintzat hartzea ekin-tza pastoraletan laguntzeko, bai antolakuntzan, bai parte-hartze **ardura berezietan**; batez ere apaiz gutxi dagoen herri edota parroketan.

4. **Monasterioen bizitza eta oihartzuna** elizbarrutiko ebanjelizazio-ekintzetan **txertatzea**, laikoei zein apaizei Jaunarekin elkartzeko, otoitz egiten ikasteko eta Hitza entzuteko isilgune aproposak eskaintzen baitizkiete.

Landa-ingurunea

Lurrak bere fruitua eman du, Jaungoiko gure Jaunak bedeinkatzen gaitu.

Sal 67, 7

Lurra bedeinkatzeak gogorarazten digu biltzen dugun fruitu bakoitza Jaungoikoaren oparia dela, baita gure landa-komunitateak zaintzeko eta indartzeko aukera ere. Herrietako bizitzak, bere erronka eta aberastasunekin, pastortza hurbila behar du: bertakoei laguntzeko, komunitateko elkar-loturak indartzeko eta gizaki bakoitzaren bizitza eta sorkuntza ohoratzen dituen garapen integrala sustatzeko. Horrela, Eliza itxaropenaren lagun eta etorkizuneko hazi bihurtzen da gure herrietako txoko guztietan.

Sarrera eta testuingurua

Gure Elizak Nafarroan errealitate anitza bizi du: hirian eta gure herrietan kristau-bizitza ezberdina da. Herrietan biziki estimatzen eta eskertzen da apaizen dedikazioa eta hurbiltasuna, nahiz eta komunitate horietan sarritan arreta eta laguntza zehatzagoaren beharra sumatu. Pastoral Plan honek maitasunezko eta itxaropenezko begirada eskeini nahi dio gure herrietako fede-bizitzari; helburua da guztiek, salbuespenik gabe, fedea ospatu, hazi eta Elizaren zati bizia direla sentitzea. Beharrezkoa da komunitate txiki hauetan kristau-bizitzari eusten diotenak zaintzea eta elkarrekin Eliza izatearen poza berritzea landa-eremuan ere, sakabanaketari eta apaizen eskasiari aurre eginez.

Erronka nagusiak

Gure komunitateen kristau-bizitzak erronka handiei egin behar die aurre, eta horrek arreta pastoral eta sormena eskatzen dizkigu.

Parrokien antolakuntzak haus-kortasun-zantzuak erakusten ditu: fededun gutxi eta apaiz gutxi dituzten parrokia asko daude eta egoera horretan zaila da laguntza hurbil eta iraunkorra ziurtatzea. Askotan, sakramentu-ospakizunetik haratagoko parrokia-bizitza falta da: parrokia-kontseilurik ezak, eta katekesi-talde edo komunitate-ekimen gutxi izateak, fede-bizitza pobretu eta Ebanjelioaren transmisioa murgatzen dute.

Landa-inguruneko apaizak izan daitezke kaltetuenak: bakardadeak, parrokia askoren ardura aldi berean izateak, administrazio-ardurek eta pastoral lanean laguntza gutxi izateak nekea dakarte eta ebanjelizatze-ko indarra ahuldu dezakete. Gainera, apaizarekiko gehiegizko menpekotasunak komunitate ahulak eta konpromisorik gabekoak sor ditzake.

Komunitate-bizitzari dagokionez, fedea biziberrituko luketen ebanjelizazio-eremu berriak zabaltzeko oztopoak aurkitzen ditugu komunitate txikietan. Hala ere, **herri-erlijiozaletasunari balio handia** aitortzen zaio: erromeriak, erromesaldiak eta Done Jakue Bidea fede-adierazgarri biziak dira oraindik ere eta ebanjelizaziorako bide paregabe gisa zaindu, indartu eta erabili behar ditugu.

Azkenik, **gure herrietako elizen ondare kultural aberatsa**, aurreko belaunaldien fedearen lekuko miragarria, arreta eta zaintza behar duen altxorra da; baina behar bezala mantentzea ez da erraza, are gutxiago giza baliabide nahiz materialak urri diren testuinguruetan.



KONPROMISOA

Kristau-komunitate kementsu eta parte-hartzaileek osatutako Eliza bizia eta atsegina dugu amets landa inguruneetarako. Eremu honetan Elizaren presentzia lagungarria izatea nahi dugu, egitura antolatu eta sendo baten bidez, gaurko erronkei erantzuteko eta **gure parrokien fedea eta tradizioak berritzeko** gai izanen dena, betiere eskualde bakoitzaren errealitate zehatzera egokituz.

Landa-ingurunea



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

74. [...] Zereginak eta ardurak modu egituratuagoan banatzeak, baita apaiz-ministerioari bereziki zer dagokion eta zer eskuordetu daitekeen bereizteak ere, mesede eginen die apaizei beren egitekoa modu osasuntsuago eta eraginkorragoan bete ahal izateko maila guztietan.

26. Eukaristiaren ospakizuna, igandekoa bereziki, Jainkoaren Herri santua elkartzeko eta biltzeko bide nagusi eta oinarrizkoena da. Eukaristiaren ospakizunaren bidez, “Elizaren batasuna adierazi eta gauzatu egiten da”. (UR 2). [...] Igandeko meza ospatzea ezinezkoa den tokietan, komunitatea Hitzaren

ospakizunaren inguruan biltzen da —hala dagokionean—, eta bertan ere Kristo presente dago.



BIDEAK

1. Landa-eremuan, bertako laikoek osatutako **laguntza taldeak** sortzea, parrokia bakoitzaren beharrei modu egonkorrean erantzuteko; helburua fedea bizirik mantentzea eta ospatzea da, guztiengana —gazteengana, gaixoen-gana, behartsuengana...— iritsi ahal izateko.
2. Elizbarrutiko ondarearen **plangintza orokorra** antolatzea, adituek (historialariak, abokatuak, arkitektoak eta mantentze-lanetako arituak) osatutako talde baten eskutik. Plangintza horrek etorkizuneko behar pastoralak hartu beharko ditu kontuan, landa-parrokien bideragarritasun



ekonomikoa bermatuz eta ondarea zaindu zein sustatzeko adostutako irizpideak ezarriz.

3. Landa-ondare aberatsa ebanjelizazioarako tresna gisa erabiltzea. Horretarako, hainbat ekimen jar daitezke martxan: gidari kristauak prestatu ondarearen historia eta esanahi espirituala ezagutarazteko, eta tresna informatikoak garatu gure elizak, festak eta tradizioak modu erraz zein erakargarrian azaltzeko.

Babesa eta ingurune seguruak

Ikasleak eztabaidan hasi ziren beren artean, beraietan zein ote zen handiena. Jesusek esan zien: «Herrietako erregeek menpean hartzen dituzte herriak, eta agintedunek “ongile” izena nahi izaten dute berentzat. Zuek ez jokatu horrela. Zuen artean nagusia izan bedi gazteenaren pareko, eta agintaria zerbitzariaren pareko. Zein ote da handiago, mahaian dagoena ala zerbitzatzen ari dena? Ez ote mahaian dagoena? Bada, ni zerbitzari bezala nago zuen artean. Lk 22, 24-27

Jesusek gogorarazten digu benetako agintea zerbitzuaren eta apaltasunaren bidez gauzatzen dela, ez boterearen edo nagusitasunaren bidez. Bere jarraitzaileen artean zerbitzari gisa agertu zen, txikienei eta ahulenei lehentasuna emanez. Hitz horiek gidari hartuta, gure komunitateak babesgune izatea nahi dugu; inor

baztertuta edo bakarrik sentituko ez den guneak, non zerbitzatzea errespetu, entzute eta laguntza bihurtzen den. Horrela, Eliza babesleku segurua izanen da, Kristoren samurtasunaren eta hurbiltasunaren ispilu.

Sarrera eta testuingurua

Eliza pertsona guztiak, batez ere gazteenak eta ahulenak, errespetatuak, entzunak eta zainduak sentitzeko lekua izatera deituta dago. Ingurune seguruak sortzea eta babestea ez da soilik legearen edo erakundeen eskakizuna; berez, Ebanjelioaren adierazpen sakona da, besteak zerbitzatzeri eta autoritatea arretaz eta erantzukizunez erabiltzera gonbidatzen gaituena. Hortaz, komunitate seguruak eraikitzea gure ebanjelizatze-misioaren funtsezko atala da, baita sinesgarritasuna, konfiantza eta itxaropena pizteko ezinbesteko baldintza ere.

Erronka nagusiak

Eliza seguru baterako benetako bideak erronka garrantzitsuak ditu aurrean. Lehenik eta behin, inertziak eta erresistentzia kulturalak gainditu behar ditugu, komunitate osoak zaintza eta babesa guztion ardura dela onar dezan. Apaizak, erlijiosoak, laikoak eta eragile pastoralak prestatu behar dira eta kontzientzia hartu behar dute, prebentzioa eta ingurune seguruak sortzea Elizaren eguneroko martxaren parte izan dadin.

Beste erronka bat biktimei laguntzeko, salaketak bideratzeko eta kalte-ordainak emateko egitura argi eta eraginkorrak ezartzea da. Azkenik, babesa gure pastoral-jardun osoan errotutako kultura bihurtu dadin lan egin behar dugu; gure parrokia, komunitate eta zerbitzuek Jesusen jarrera erakutsi dezaten: bere herriaren erdian egotea, zerbitzari gisa.



KONPROMISOA

Gure elizbarrutian ingurune seguruak eta babesleki buruzko protokoloak ezarri, elkar-zaintzaren eta tratu onaren kultura sustatu nahi dugu. Guztion ardurapean, gure lan pastoralean eta erakundeetan pertsona ororentzat —batez ere haur, nerabe eta heldu ahulentzat— eremu, ekintza eta harreman seguruak sortzea dugu helburu.



Apezpikuen Sinodoaren Amaierako Agiria

2024KO URRIAREN 26A

46. Prozesu sinodaleko aldi guztietan behin eta berriz entzun da Elizaren barruan sendatzeko, adiskidetzeko eta konfiantza berreraikitze beharra. Eliza, bere bizitzaren eta jardunaren erdigunean, hau jartzera deituta dago: Kristorengan, bataioaren

Babesa eta ingurune seguruak

bidez, elkarri emanak eta lotuak gaudela. Eginbehar sakratu bihurtzen den errealitate sakon hau onartzeak gure hutsegiteak aitortzeko eta konfiantza berreskuratzeko aukera ematen digu. Zeregin hau justizia-ekin-tza bat da, Jainkoaren Herriak gure munduarekin duen misiolari-konpromisoa, eta goitik eskatu beharreko dohaina. Bide honi ekiteko borondatea sinodoak dakarren berritzearen fruitua da.

55. Abusuen krisiak, agertu den modu askotariko eta tragikoe-tan, sufrimendu izugarria eta askotan betiko zauria eragin die biktimei, kaltetuei eta haien komunitateei. Elizak arreta eta begirune handiz entzun behar ditu apaizek edo Elizako arduradunek eragindako erasoak jasan dituztenen ahotsak —izan sexualak, espiritualak, insti-tuzionalak, nahiz botere edo kontzientzia-abusuak—. Be-netan entzutea ezinbestekoa da sendatzeko, damutzeko,

justiziarako eta adiskidetzeko bidean. Elizak bere hutsegiteak onartu behar ditu, apaltasunez barkamena eskatu, biktimei babesa eman, prebentziorako baliabideak jarri eta Jaunaren-gan daukagun elkarrenganako konfiantza berreraikitze-ko aha-legin guztiak egin.



BIDEAK

1. Finkatutako protokoloak jarraituz, Iruña eta Tuterako Elizbarrutiko Babes-batzordeak lagundutako **biktimei harrera egitea eta kal-te-ordaina** ematea.
2. **Errespetuzko kultura eta inguru-ne seguruak sustatzea**, elizba-rrutiko pastoral-eragileen artean kontzientziazioa eta erantzukizu-na areagotuz. Horrela, bakoitzak bere eginkizuna zein den ulertuko



du adingabeei nahiz heldu ahulei eragindako edozein motatako abu-su edo tratatu txarri aurre hartzeko, hautemateko eta salatze-ko.

3. Adingabeekin eta heldu ahulekin jarduera pastoralak egiten diren **elizbarrutiko eremuetan, inguru-ne seguruak izateko** gutxiene-ko baldintzak betetzen direla ziurta-tzea.
4. Sexu-deliturik ez dagoela egiaz-tatzen duten **ziurtagiriak erre-**

gistratzeko sistema bat ezartzea, erraz eguneratzeko modukoa.


OTOITZA

Zuri, Ama Birjina, gomendatzen dizkizugu
pastoral plan honetako gure ahalegin eta lanak.

Bideko Ama Birjina,
Jainkoari baldintzarik gabe “baietz” esanez,
gizadiarentzat bide berriak zabaldu zenituen
zure Seme Jesukristoren bidez.
Emaguzu Jesusen urratsei jarraitzeko grazia,
Erreinuko Berri Ona gure elizbarrutiko
txoko guztietara eramanez.

Itxaropeneko Ama Birjina,
“Egin bedi niregan zure hitzaren arabera” esanez,
gure bihotzak ireki zenituen
etorkizun berria eman nahi digun Jainkoari entzuteko.
Emaguzu Eliza eta mundu berri baten
itxaropenari zabalik bizitzea,
non azkenekoek leku hautatua izanen duten
harrera egin, lagundu eta sendatu egiten duten elkarteetan.

Hala eskatzen dizugu zuri, Jesukristo,
Jainkoaren eta Mariaren Seme,
berpizturik errege bizi baitzara
gizaldi eta gizaldietan.
Amen.





**IRUÑA ETA TUTERAKO
ARTZAPEZPIKUTZA**

Santa María la Real plaza 1
31001 Iruñea, Nafarroa
T 948 22 74 00
<https://iglesianavarra.org/>